



EUSKARALDIA I

Emaitzen azterketa

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA
ETA EUSKARAREN EREMU OSOA

2018-2019



EUSKARALDIA I

Emaitzen azterketa

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA
ETA EUSKARAREN EREMU OSOA

2018-2019

Argitaraldia: 2019

© Nafarroako Gobernua
Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskarabidea.eus

Egileak: Pello Jauregi (Euskal Herriko Unibertsitatea)
Uxo Anduaga (Soziolinguistika Klusterra)

Ikerketaren
Jarraipen Batzordea: Nafarroako Gobernua
Eusko Jaurlaritza
Euskararen Erakunde Publikoa
Gipuzkoako Foru Aldundia
Soziolinguistika Klusterra
Euskaltzaileen Topagunea

Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua
Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua

Azala eta
maketazioa: Concetta Probanza



HITZAURREA

Ana Olló Hualde

Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria

Azken hamarkadetan euskaraz dakiten nafarren kopurua eten gabe hazi da, belaunaldi gazteetan batik bat. Horrek euskarak gizartean duen presentzia handitzea ekarri badu ere, oraindik handia da euskararen gizarte erabilera hazteko dagoen tarte. Horretarako, hizkuntza nagusiaren aldeko inertzia sozialen aitzinean, euskaraz ulertzen eta egiten dutenen artean euskaraz komunikatzeko ohitura eta joera sortu eta sendotu beharra dago.

Hori horrela, Nafarroako Gobernuak 2017ko urtarrilaren 25ean onartutako *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)* dokumentuan jasotzen da euskararen gizarte erabilera areagotzea, lehen ardatz estrategiko bihurturik.

2017an Euskaltzaleen Topagunea elkartea, euskara elkarteen federazioa, *Euskarak 365 egun* egitasmoa euskararen eremu osorako lantzen hasi zen. Euskara bere duten lurraldeetako erakunde publikoek ideia babestu zuten eta Euskaraldia ekimena Euskal Herri osoan garatzeko prozesuari ekin zitzaion. Egitasmo hau Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskara sustatzeko hitzartua duten lankidetzaren hitzarmen espezifikoa, Hiruko Itunean, jaso zen.

2018an Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaleen Topaguneak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten hizkuntza ohiturei eragitea eta euskararen erabilera handitzea helburu zuten Euskaraldia ekimena Nafarroan garatzeko.

Erakunde publikoen eta gizarte ekimeneko eragileen arteko lankidetzaren hitzarmena garatzeko modua eta elkarlan horrek emaitza onak izan ditu. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra gauzatu zen Euskaraldian 20.861 nafarrek eman zuten izena eta Nafarroako 90 herritan landu zen ekimena.



Parte-hartzeko datu horietatik landa, Euskaraldiak euskararen erabilerari eragin diona ezagutzea ere interes handikoa baitzen, Nafarroako Gobernuak euskaraldiaren eragina ezagutzeko ikerlana eskatu zion Soziolinguistika Klusterrari.

Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019) dokumentuaren hitzaurrean agerian utzi nuen bezala, hizkuntza politikak –eta zeinahi politika publikok– planifikazioa behar du, hots, helburuak erdiestera bideraturiko neurriak garatzeko tresna bat izan behar du, lehen-tasunak ezarri eta baliabideak kudeatzen dituenena. Lan planifikatu horretarako erakunde publikoen diru-babesa izan duten ekimenek ekarri duten ondorioa neurtzeak berebiziko garrantzia du. Horri erantzun nahi izan dio Euskaraldiak euskararen erabilera sozialari eragin diona aztertzeke ikerketak, dokumentu honetan aurkezten denak.





Aurkibidea

SARRERA

11

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1. OHAR METODOLOGIKOAK

15

2. DATU OROKORRAK

19

2.1. Parte-hartzaileak

19

2.1.1. Zereginen arabera: ahobiziak eta belarriprestak

19

2.1.2. Generoaren eta adinaren arabera

19

2.1.3. Gaitasunaren arabera

20

2.1.4. Motibazioaren bilakaera

21

2.1.5. Hizkuntza jokaeraren bilakaera

22

2.2. Ahobiziak

35

2.2.1. Generoaren eta adinaren arabera

35

2.2.2. Gaitasunaren arabera

36

2.2.3. Motibazioaren bilakaera

36

2.2.4. Hizkuntza jokaeraren bilakaera

37

2.3. Belarriprestak

52

2.3.1. Generoaren eta adinaren arabera

52

2.3.2. Gaitasunaren arabera

52

2.3.3. Motibazioaren bilakaera

53

2.3.4. Hizkuntza jokaeraren bilakaera

54



7

| | |
|---|-----------|
| 2.4. Ahobizien eta belarripresten arteko harremanak | 69 |
| 2.4.1. Ahobizien hizkuntza jokaera ahobiziekin (mintzamena) | 69 |
| 2.4.2. Ahobizien hizkuntza jokaera belarriprestekin (mintzamena) | 70 |
| 2.4.3. Belarripresten hizkuntza jokaera ahobiziekin (mintzamena) | 71 |
| 2.4.4. Belarripresten hizkuntza jokaera belarriprestekin (mintzamena) | 72 |
| 3. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURREAN) | 73 |

EUSKARAREN EREMU OSOA


| | |
|--|-----------|
| 1. OHAR METODOLOGIKOAK | 77 |
| 2. AZTERKETA KUANTITATIBOA | 79 |
| 2.1. Euskaraldia unibertsoaren eta laginaren arteko alderaketa | 79 |
| 2.2. Abiapuntuko egoeraren argazki orokorra | 80 |
| 2.2.1. Ezaugarri orokorrak | 80 |
| 2.2.2. Hizkuntza ezaugarriak | 81 |
| 2.2.3. Katetgoria bereziak | 82 |
| 2.3. Hizkuntza jokaeraren bilakaera | 83 |
| 2.3.1. Hizkuntza bilakaera orokorra: lagin osoa | 84 |
| 2.3.2. Eginkizunaren eta hizkuntza gaitasunaren arabera | 85 |
| 2.3.3. Gune soziolinguistikoaren arabera | 88 |
| 2.3.4. Lurraldearen arabera | 90 |
| 2.3.5. Adin tartearen arabera | 91 |
| 2.3.6. Generoaren arabera | 93 |
| 2.4. Euskararen presentzia norbere egunerokoan | 94 |
| 2.5. Praktika soziolinguistikoa | 96 |
| 2.5.1. Komunikazio egoerak | 97 |
| 2.5.2. Erraztasun/zailtasunaren hautematea hainbat jokabideren aurrean | 100 |
| 2.6. Euskaraldia barrutik | 103 |
| 2.6.1. Eginkizunak bete | 103 |
| 2.6.2. Ahobizi eta Belarripresten arteko hizkuntza harremanak | 105 |





| | |
|---|------------|
| 3. AZTERKETA KUALITATIBOA | 109 |
| 3.1. Ekimenaren indarguneak | 109 |
| 3.1.1. Dimentsioa eta izaera | 109 |
| 3.1.2. Taldetasuna | 110 |
| 3.1.3. Praktika soziolinguistiko urratzaileak | 111 |
| 3.1.4. Hizkuntza erabileraren indarra frogan jarriz | 113 |
| 3.1.5. Hizkuntza hautemateen aldaketa | 114 |
| 3.1.6. Txapa | 116 |
| 3.2. Ekimenaren ahulgune eta zailtasunak | 116 |
| 3.2.1. Mezua ongi transmititu ez izana | 116 |
| 3.2.2. Engaiamendu falta | 118 |
| 3.2.3. Zenbait oztopo hizkuntza aldaketarako | 119 |
| 3.2.4. Gune soziolinguistikoa | 120 |
| 4. ONDORIO NAGUSIAK | 123 |





SARRERA

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3 bitartean euskararen erabilera sustatzea helburu zuen *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimena gauzatu zen euskararen eremu osoan. Ekimenak ahobizi eta belarriprest rolen bidez euskaraz mintzatzeko baldintza sozial egokiak sorraraztea zuen helburu, euskaraz dakitenek eta hitz egin nahi dutenek hizkuntza ahal beste erabiltzeko aukera izateko.

Horretarako *ahobizi* eginkizunean aritu zirenei euskaraz ulertzen zuen orori euskaraz egiteko eskaera egin zitzaion, bai eta ezezagunekin egiten zuten lehen hitza euskaraz izan zedin ere. *Belarriprest* zereginean aritu zirenek, aldiz, haiekin euskara erabili zezaaten gonbitea egin behar zieten inguruko euskaldunei.

Dimentsio txikiagoan aurretiaz egin ziren antzeko beste saiakeretan ikusi zen halako ekimenak euskararen erabilera areagotzeko baliagarriak direla; hau da, epealdi mugatu batez ahal beste euskara erabiltzeak hizkuntza ohiturak euskararen alde modu iraunkorrean aldatzea bultzatzea zezakeela.

Ordu arteko emaitzak emankorrek zirela ikusita eskala handiagora eraman nahi izan zen praktika hura eta 2018an abian jarri zen euskararen eremu osoko biztanleen artean euskara erabiltzeko gonbita zabalduko zuen ekimena. Horrela, *Euskaraldia: 11 egun euskaraz*, euskararen eremu osoan inoiz egin den ekimen soziolinguistiko kolektibo eta koordinatu handienetakoa, mamitzen hasi zen.

Ekimen horrek euskararen gizarte erabilerari nola eragin zion neurtzeko *I. Euskaraldia ikerketa proiektua* garatu zen. Ikerketa horren emaitzak dokumentu honetan bildu dira: lehen atalean, Nafarroako Foru Komunitatean jasotako datu kuantitatiboak eta bigarren atalean, euskararen lurralde osoko datu kuantitatiboak zein kualitatiboak.

Hala bada, ikerbide kuantitatikoak Euskaraldiaren eragina nolakoa eta zenbatekoa izan den argitzeko bide eman du; eta aztermolde kualitatiboak, ekimenaren inguruan parte-hartzaileek izan dituzten iritzi eta bizipenak ezagutzeko aukera eman du. Bi bi-deetatik jasotako emaitzek balio izan dute 2018ko Euskaraldiaren balorazio osoa egiteko eta, horri esker, hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesuetan jokatzeko duten gakoak hobeki ezagutzeko.

Ikerketa honetarako batzorde tekniko batean lankidetzan aritu ziren erakunde publiko eta gizarte eragile hauek: Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Euskararen Erakunde Publikoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Soziolinguistika Klusterra eta Euskaltzaleen Topagunea.





NAFARROAKO
FORU KOMUNITATEA

2019



1.

OHAR METODOLOGIKOAK

Euskaraldiak herritarren hizkuntza ohituretan izan duen eragina nolakoa izan den ikus-
teko, azterketa longitudinal bat burutu da, ekimeneko une desberdinetan herritarren
hizkuntza ohiturak nolakoak diren neurtu dituena. Zehazki, galdetegi bidezko hiru
neurketa egin dira hiru garai desberdinetan:

1. Lehenengo galdetegia: Euskaraldia hasi aurretik (2018ko azaroaren 23 baino lehen)
2. Bigarren galdetegia: Euskaraldia amaitu berrikan (2018ko abenduaren 3a ondoren)
3. Hirugarren galdetegia: Euskaraldia amaitu eta hiru hilabetera (2019ko martxoa)

Ikerketan hiru galdetegiak bete dituzten pertsonen datuak hartu dira soilik kontuan. Izan
ere, galdetegi bat edo bi bete izateak parte hartzaileen hizkuntza ohituren inguruko
informaziorik eskaintzen badu ere, hiru galdetegiak bete dituztenen emaitzek baino ez
dute ematen Euskaraldiaren uneko zein luzetarako ondorioak neurtzeko aukera.

Hau kontuan izan da galdetegien bidalketa egiteko momentuan. Lehen galdetegia
Euskaraldian izena eman duten guztiei igorri zaie; bigarrena, lehena erantzun dutenek
bakarrik jaso dute; eta hirugarrena, lehena eta bigarrena bete dutenei baino ez zaie
bidali. Nafarroako kasuan, ondokoak dira galdetegi bakoitzean jasotako emaitzak:

1. Lehen galdetegia: Bidalketa 20.861 pertsonari; jasotako erantzunak 5.620
2. Bigarren galdetegia: Bidalketa 5.620 pertsonari; jasotako erantzunak 4.041
3. Hirugarren galdetegia: Bidalketa 4.041 pertsonari; jasotako erantzunak 2.315 (iker-
ketako lagina)

Galdetegi bakoitzean euskararen ezagutzaren eta erabileraren gaineko itaunak egin
zaizkie parte-hartzaileei. Horrek ahalbidetu du, batetik, parte hartzaileen unean uneko
hizkuntza portaera nolakoa den ikusi eta aztertzea. Horrekin batera, bestetik, momen-
tu bakoitzeko datuak alderatuz, *11 egun euskaraz* ekimenak parte-hartzaileen hizkuntza



ohituretan izan duen eragina zenbatekoa eta nolakoa izan den ikusi da. Galdetegiak posta elektronikoz jaso dituzte parte-hartzaileek eta bertan zuzenean erantzuteko aukera izan dute, Internet bidez¹.

Ikerketa hau, beraz, borondatezko lagin handi batean oinarritu da; kideak zoriz aukeratu beharrean haien inizatibaz hurbildu direnen emaitzak jasoz. Laginketa molde honek berekin dakar lagin zabal eta aberats bat lortzeko aukera, eta horrekin batera emaitza baliagarriak eskuratzekoa. Baina aldi berean, baditu bere ahuldadeak ere, izan ere, nahi duenari parte hartzeko aukera emateak lagina eta unibertsoaren arteko alborapena ekar dezake (hau da, laginaren ezaugarriak eta ekimenean parte hartzeko Nafarroan izena eman dutenenak desberdinak izatea). Hori jakinik, komeni da lagina eta unibertsoa alderatzea, eta alborapena egotekotan, datuen interpretazioan horiek kontuan hartzea.

- ▮ Nafarroan Euskaraldian parte hartzeko izena emandako pertsona kopurua²: 20.861
- ▮ Hiru galdetegiak bete dituzten pertsonen kopurua: 2.315

Lagin hau zorizkoa izan balitz, jasotako emaitzen konfiantza maila %95 litzateke, eta errore maila $\pm 1,9$ koa. Kasu honetan, ordea, lagin boluntarioa denez konfiantza mailari begiratu ordez lagina eta unibertsoaren arteko alborapenari behatzea komeni da. Ondokoa erakusten du lagina eta unibertsoaren arteko alderaketak:

- a. Generoari dagokionez: Lagina unibertsoa baino *femeninoagoa* da (laginean %66,9 dira emakumeak; unibertsoan %60,5).
- b. Adinari dagokionez: Laginaren batz besteko adina unibertsoarena baino urte bete gazteagoa da (laginean 39 urte; unibertsoan 40 urte).
- c. Rolei dagokionez: Lagina nabarmenki *ahobiziagoa* da (laginean %82,5 dira *ahobizi*; unibertsoan %72).

Laginaren inguruan sor daitekeen beste zalantzetako bat da galdetegia bete dituzten pertsonak Euskaraldian izena eman dutenak baino euskaltzaleagoak direla pentsatzea. Tamalez, hori ezin da zuzenean egiaztatu, ez baitago Euskaraldian izena eman dutenen hizkuntza ezaugarriei buruzko daturik. Baina bestelako alderaketarik egin daiteke: lehenengo galdetegia bete dutenen (5.620 lagun) eta hiru galdetegiak bete dituztenen artekoa (2.315 lagun). Alderaketa horrek bi datu bistaratzeko ditu.

1. Jasotako emaitza guztiak datu base batean jaso dira Datu Pertsonalen Babeserako Legeak eskatzen dituen irizpide guztiak egoki beteaz.

2. Ikerketarako 2018ko azaroaren 23a baino lehen izena eman zutenen kopurua hartze da kontuan, nahiz eta jakin Euskaraldia hasi ondoren ere izena eman zuen jenderik egon zela.





- a. Batetik, hizkuntza gaitasunean (ulermenean eta mintzamenean) eta euskarari emaniko garrantzian bi multzoen artean ez dagoela alderik (4,9 eta 4,8 eman dute biek hurrenez-hurren).
- b. Bestetik, hizkuntza erabilerari dagokionez bi taldeak berdintsuak direla (0,2 puntu gehiago laginean).

Guztia kontuan izanik ikus daiteke rolari eta generoari dagokionez nabarmena den alborapen bat badagoela eta hori kontuan hartu beharrekoa dela datuen irakurketan. Gainontzekoan, aldiz, lagina eta unibertsoaren arteko aldea oso txikia da. Oro har, beraz, uler daiteke laginak unibertsoa *nahiko ongi* ordezkatzeko duela eta informazio baliagarria eskaintzen duela herritarren hizkuntza ohituren joerak eta bilakaerak ulertzeko, bai eta Euskaraldiak horiengan izan duen eragina ikusteko ere.

Hain zuzen ere, hurrengo atalean ikus daitezke Euskaraldiak hizkuntza ohituretan izandako eraginaren xehetasunak. Taula eta grafiko bidez adierazten dira horiek, emaitzak laburbiltzen dituen testuz lagunduta. Horri lotuta ohartarazi nahi da, grafikoaren irakurketa errazte bidean %3 baino portzentaje txikiagoa duten kategoriak ez direla grafikoko zutabetan zifra bidez adierazi, horren ordez, kolore bidezko bereizketa erabili da soilik.



2.

DATU OROKORRAK

2.1. Parte-hartzaileak

2.1.1. Zereginen arabera: ahobiziak eta belarriprestak

1. taula

| | | |
|--|--------------|---------------|
| Euskaraldian izena eman dutenak guztira (2018ko azaroak 23 baino lehen egindako izen emateak) | | 20.861 |
| 3 galdetegiak erantzun dituztenak | Ahobizi | 1.910 |
| | Belarriprest | 405 |
| | Guztira | 2.315 |

Galdetegiak bete dituztenen artean nagusi dira *ahobiziak*, lagin osoaren %82,5 osatzen baitute (1.910 lagun); *belarriprestak*, aldiz, %17,5 dira (405 kide).

2.1.2. Generoaren eta adinaren arabera

2. taula

| | Emakumezkoa | Ez-binarioa | Gizonezkoa |
|-----------------|-------------|-------------|------------|
| 16-24 | 272 | 1 | 93 |
| 25-34 | 296 | 1 | 140 |
| 35-49 | 672 | 8 | 299 |
| 50-64 | 284 | 6 | 181 |
| 65etik gorakoak | 26 | 0 | 36 |
| Guztira | 1.550 | 16 | 749 |



Emakumezkoena da guztietan talde kopurutsuena (1.550 kide). Horien ondoren datoz gizonetzkoak (emakumezkoen erdia baino zerbait gutxiago direnak, 749 lagun) eta ez-binarioak azkenik, partaide kopuru urriena duen taldea.

Adinari dagokionez kategoria guztietan nagusi dira 35-49 urte artekoak, eta zifra baxuagoetan 25-34 zein 50-64 urte artekoak. Azken talde hori (50-64) ugaria da gizonetzkoetan, 4tik 1 adin multzo horretan baitago (%24,1). Gazteenen artean, aldiz, emakumezkoak dira nagusi. Parte hartu duten emakumezko gazteak (16-24 urte artekoak) adin bereko gizonetzkoak baino gehiago izan baitira (emakumezkoen %17,5 dira gazteak; gizonetzkoen artean %12,4). Talde urriena adinekoek osatzen dute (65 urtetik gorakoek).

2.1.3. Gaitasunaren arabera

3. taula




| | | Mintzamina | | | | | |
|----------|----------------------|-------------|-------------|----------------|----------------------|------|---------|
| | | Ez naiz gai | Hitz batzuk | Esaldi errazak | Elkarrizketa errazak | Ongi | Guztira |
| Ulermena | Ez naiz gai | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 |
| | Hitz batzuk | 0 | 0 | 1 | 2 | 0 | 3 |
| | Esaldi errazak | 0 | 2 | 16 | 15 | 11 | 44 |
| | Elkarrizketa errazak | 1 | 11 | 62 | 102 | 78 | 254 |
| | Ongi | 1 | 4 | 47 | 185 | 1776 | 2014 |
| | Guztira | 2 | 17 | 126 | 304 | 1886 | 2315 |

Laginean parte hartu dutenen hiru laurdenak (1776 lagunek) «ongi» ulertzen eta hitz egiten dute euskaraz. Baina badira ongi ulertuta ere ahozkoan ez direnak berdin moldatzen: %7,9k «elkarrizketa errazak» edukitzeko gaitasuna du (185 lagun); eta %2k, ongi ulertuta ere, «esaldi errazak» esaten ditu (47 lagun).



2.1.4. Motibazioaren bilakaera



1. grafikoa herriarrek euskaraz hitz egiteari eman dioten garrantzia maila agertzen da. Ehunekotan zehaztua dago erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.


Emaitzen argitan ikus daiteke garrantzia «oso handia» eta «handia» ematen dioten parte hartzaileak direla hiru neurketetan kopurutsuenak. Galdetegi bakoitzeko emaitzak alderatzen badira, bilakaera leun bat antzeman daiteke. Euskaraldiko 11 egunen ondotik (2. galdetegia) euskaraz aritzeari garrantzia «oso handia» ematen diotenak 10 puntu hazi dira, eta orotara «oso handia» eta «handia» kontuan hartuz 3 puntuko igoera dago lehen galdetegiarekin alderatuta («oso handia» eta «handia» batuz %91tik %94ra). Hiru hilabete pasata, ordea, motibazioak beheranzko joera adierazten du, hasierako zifretara bueltatuz («oso handia» eta «handia» %90 izanik).





2.1.5. Hizkuntza jokaeraren bilakaera

A. ULERTZEN DUTENEKIN EUSKARAZ




2. grafikoa herritarrek euskaraz ulertzen duten pertsonen artean euskaraz zenbati hitz egiten dioten azaltzen du. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.

Euskaraldia baino lehen haien ezagun euskaldun «guztiek» eta «gehiengoari» euskaraz egiten ziotenak erdia baino gehiago ziren («guztiek» eta «gehiengoari» elkarrekin hartuta %57). Baina zifra hori oso modu esanguratsuan hazten da Euskaraldiko 11 egunen ondotik (28 puntuko igoera, %85era iritsiz). Euskaraldiak, beraz, lagundu du euskara erabiltzeko aukeren optimizazioan, euskaraz dakitenen artean gehiagori egin baitzaie euskaraz ekimenaren ondotik. Hiru hil pasatakoan, datuak beherakada izan dute, «guztiek» eta «gehiengoari» euskaraz egiten dietenak %63 izatera igaro baitira. Beherakada horretan, ordea, ez da galdu Euskaraldian irabazitako guztia, orotara 6 puntuko igoera jaso baita lehen eta hirugarren neurketen artean («guztiek» eta «gehiengoari» elkarrekin kontuan hartuz %57tik %63ra igaroz).



B. INGURUKOEN HIZKUNTZA ERABILERA




3. grafikoa herritarrek haien egunerokoan entzuten duten euskara kopurua ikus daiteke. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.

Datuek erakusten dute herritarrek haien inguruan entzun duten euskara kopurua aldatu egin dela Euskaraldiaren ondorioz. Ikus daitekeenez, «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz entzuten dutenen kopuruak 7 puntutan gora egin du Euskaraldian («dena» eta «erdia baino gehiago» elkarrekin hartuz %35etik %42ra igaroaz). Horrekin batera, 15 puntuan jaitsi dira «erdia baino gutxiago» eta «batere ez» entzuten dutenak (bi kategoriak elkarrekin hartuz %43tik %28ra). Euskaraldian zehar, beraz, jendartean euskara gehiago erabili dela hautematen dute parte hartzaileek. Ekimena igaro eta hiru hilabetera, ordea, joera baretu egin da, eta hasierako puntura itzuli da ia guztiz inguruko hizkuntza erabilera: «dena» eta «erdia baino gehiago» kategoriak elkarrekin hartuz %37ra jaitsi baita (2 puntu irabaziaz lehen galdetegitik).



C. NORBERAREN HIZKUNTZA ERABILERA



24


4. grafikoa ikus daiteke herritarrek haien egunerokoa erabiltzen duten euskara kopuruaren bilakaera nolakoa izan den. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.

Euskaraldia hasi baino lehen «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten zutenak ez ziren erdira iristen (bi kategoriak elkarrekin hartuta %39 dira). Euskaraldiko 11 egunen ostean, ordea, 18 puntu egin dute gora (%39 izatetik %57 izatera). Hitz egiten dutenaren «erdia» euskaraz egiten dutenen kopurua bere horretan mantendu da (%22n), eta aldaketa «erdia baino gutxiago» eta «batere ez» egiten dutenen aldetik antzeman da bereziki. Hiru hilabete ondoren, ordea, beherakada nabari daiteke goranzko joera horretan, «dena» eta «erdia baino gehiago» egiten dutenaren kopuruak 14 puntu egiten baitute behera (%57tik %43ra). Ez da, ordea, Euskaraldian aurreratutako guztia galtzen, hasierako neurketatik 4 puntuko tarte irabazi baita.



D. ERABILERA EZAGUNEKIN


Datozen grafikoetan herritarrek gizarte eremu desberdinetako haien ezagunekin erabili ohi duten euskara kopurua adierazten da. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.




25

Familian «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten dutenak asko hazi dira Euskaraldian zehar, 13 puntuko irabazia atera baitute 1. galdetegitik 2.era: «dena» eta «erdia baino gehiago» elkarrekin kontuan hartuz %44 izatetik %57 izatera igaro dira. Euskaraldia ostean, ordea, jaitsiera nabarmena izan da, eta familian «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten dutenen artean hasierako neurralditik 2 puntuko irabazia baino ez dute eskuratu («dena» eta «erdia baino gehiago» elkarrekin kontuan hartuz %44tik %46ra igaro dira).

6. grafikoa: **Lagunartean (%)**




Eremu sozial guztien artean lagun giroan izan du Euskaraldiak eraginik nabarmenena. Ekimenaren 11 egunetan 25 puntu igo da «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten dutenen kopurua (bi kategoriak elkarrekin hartuta %32 izatetik %57 izatera igaroz). Hiru hilabete ondoren, joera aldatu egin da, ordea, eta jaitiera izan dute bi kategoria horiek (21 puntuko beherakada biak elkarrekin kontuan hartuta). Nolanahi ere, lehen galdetegiarekin alderatuz hirugarrenean 4 puntuko igoera ikusten da bi kategoria horietan («dena» eta «erdia baino gehiago» elkarrekin hartuz lehen galdetegian %32 izatetik hirugarren galdetegian %36 izatera igaroz). Lagun arteko zenbait harreman euskaraz finkatu direla agerian jartzen du horrek.



Euskaraldia hasi aurretik lantokian ematen ziren hizkuntza harremanetan «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten dutenak %40 dira. Euskaraldiak ez du berebiziko eraginik izango esparru honetan, eta erabileran goranzko joera antzeman badaiteke ere oso igoera leuna da: 2. galdetegian 4 puntu hazten dira «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten dutenak (bi kategoriak elkarrekin kontuan izanik %40tik %44ra). Hiru hilabete igarota, ordea, irabazitakoa galdu eta hasierako egoerara itzuli da (1. galdetegitik puntu 1 irabaziz).



8. grafikoa: **Ikaslekuan (%)**




28

Lantokian bezala ikaslekuan ere Euskaraldiaren eragina nahiko mugatua izan da. Euskaraz «dena» eta «erdia baino gehiago» egiten dutenak 4 puntu igo dira 11 egunen ostean (bi kategoriak kontuan hartuz %32tik %36ra). Hirugarren galdetegian, aldiz, hasierako puntura itzuli dira, ekimenean irabazitakoa atzera galduz.

Laburbilduz, esparru sozial desberdinetako ezagunekin dauden hizkuntza jokaerei erreparatuz esan daiteke esparru informaletan (familiar eta lagunartean) esparru formaletan (lantokian eta ikaslekuan) baina eragin handiagoa izan duela Euskaraldiak. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da esparru informaleko bilakaera askoz ere gora-beheratsuagoa izan dela: 11 egunen ostean euskararen erabilera asko hazi bada ere, hiru hilabete pasata galerak esparru formalekoak baino handiagoak izan baitira, nahiz eta ez den ordu arte irabazitako guztia galdu.



E. ERABILERA EZEZAGUNEKIN




Herritarrek haien egunerokoan topatzen dituzten ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko jokaeraren maiztasuna ikus daiteke 9. grafikoan. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.

Lehen eta bigarren galdetegietako emaitzak alderatuta ikus daiteke Euskaraldiak lehen hitza «beti» eta «askotan» euskaraz egiteko joera duten pertsonen kopurua bikoiztea ekarri duela («beti» eta «askotan» kategoriak elkarrekin hartuz %32 izate-tik %64 izatera igaroaz). Hiru hilabete igaro ondoren ezezagunei euskaraz zuzentzeko ohitura kasu askotan barneratu dela antzeman daiteke, «beti» eta «askotan» egiten dutenak %42 baitira azken neurketan (lehen neurketarekin alderatuta 10 puntu handiago).



F. ERABILERA NORBERE MINTZATZEKO GAITASUNAREN ARABERA



30

10. grafikoan ikus daiteke herritarrek duten mintzatzeko gaitasunaren arabera nolakoa den euskara erabiltzeko duten joera. Erabilera hori *indize* baten bidez adierazi da. Indizea kalkulatzeko «ulertzen dutenekin euskaraz egin» aldagaiaren emaitzak hartu dira kontuan, eta erabileraren batz bestekoa 0-100 eskalara ekarri da. Eskala horretan 100 «euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitea» litzateke eta 0 «euskaraz ulertzen dutenen artean inori euskaraz ez egitea».

Emaitzei erreparatuz antzematen da «ongi hitz egiteko» gai direnak aritzen direla gehien euskaraz (67-92 puntu artean), eta «esaldi errazak» esaten dituztenak, aldiz, gutxi (2-37 puntu artean). Maila desberdinetan bada ere, ikus daiteke kasu guztietan hizkuntza ohituren joerak antzeko bilakaera izan duela. Euskaraldiak eragin positiboa izan du, oro har, eta ulertzen dutenekin euskara gehiago erabiltzeko joera zabaldu du gaitasun maila desberdina duten pertsonen artean. Igoera hori bereziki nabarmen-

3. 10. grafikoan ez dira mintzatzeko gaitasun guztiak adierazten. Izan ere, 3. taulan ikus daitekeen moduan, kategoria batzuk oso lagin txikia dute («ez naiz gai» eta «hitz batzuk») eta horiek grafikoko datuak desitxuratzeko eta interpretazio akastunak egitea dakarte. Hartara, kasu honetan «mintzatzeko gaitasun ona» dutenen, «elkarrizketa errazak» izateko gai direnen eta «esaldi errazak» dituztenen emaitzak jasotzen dira.



na izan da «elkarrizketa errazak» izateko gai direnetan: lehen galdetegitik bigarrenera 47 puntu igo baitituzte (18tik 65era), ia «ongi hitz egiten dutenen» hasierako mailara (67 puntu) iristeraino haziaz.


Hiru hilabete igarota euskara erabiltzeko joerak behera egin du maila guztietan, baina lehen galdetegiko emaitzekin alderatuta zenbait harreman euskaraz egonkortu direla ikus daiteke. Izan ere, «ongi hitz egiten» dutenek 6 puntu irabazi dituzte (67tik 73ra); «elkarrizketa errazak» dituztenek 10 (18tik 28ra); eta «esaldi errazak» esateko gai direnek 8 (10etik 2ra).

G. ERABILERA SOLASKIDEAREN GAITASUNAREN ARABERA

Jarraian agertzen diren lau grafikoetan hizkuntza gaitasun eta jokaera desberdinen aurrean parte hartzaileek izan duten jarrerari buruzko informazioa ageri da. Ehunekoetan zehazten da kategoria bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.




31







Solaskideak euskaraz ondo ulertzen duen kasuetan (11. grafikoa) euskaraz «beti» eta «askotan» egiten dutenak ez dira heren batera iritsi lehen galdetegian («beti» %10 eta «askotan» %19). Euskaraldiaren eraginez, ordea, joera horrek gorantz egin du 11 egunen ostean eta «beti» eta «askotan» euskara erabiltzen dutenen kopurua erditik gora geratu da (%58, bi kategoriak kontuan izanik). Hiru hil pasatakoan joera horrek zerbait egin du behera, baina 7 puntu irabazi dira lehen neurketatik («beti» eta «askotan» egiten dutenak %29 izatetik %36 izatera pasatuz).



Euskaraz zailtasunez ulertzen duen solaskidearekin topo eginez gero (12. grafikoa) euskara erabiltzeko aukerak nabarmen jaisten dira. «Beti» edo «askotan» euskara erabiltzen dutenen kopuruak bereziki urriak dira hemen: lehen neurketan %9 baino ez dira (%7 «askotan» eta %2 «beti»); eta Euskaraldian zehar zifra hori hazten bada ere (bi kategoriak kontuan izanik 16 puntu) hasierako egoerara itzultzen da hiru hilabete pasatakoan (%10).



Solaskideak euskaraz erraztasunez ulertzen duenean (13. grafikoa) euskararen erabilera izugarri zabala da. Halako egoeretan euskaraz «beti» eta «askotan» aritzen direnen kopuruak ia %90etik gora daude hiru neurketetan, apenas antzematen delarik aldaketarik Euskaraldian zehar. Ez da harritzekoa, izan ere, zifra hain altuak izanik uler daiteke euskara erabiltzeko joera oso egonkortua dagoela, eta ondorioz, aldaketarako (hobetzeko) margen gutxi geratzen dela.



Euskaraz zailtasunez mintzatzen direnekin euskaraz «beti» edo «askotan» dihardute-
nak gehiengoa dira hiru neurketetan (14. grafikoa). Lehen eta bigarren galdetegian bi
kategoria horien kopuruak apenas aldatzen dira (%74 eta %73 biak elkarrekin hartuta).
Hirugarrenena aldiz, kopuru hori beherantz doa «batzuetan» egiten dutenen mese-
detan (7 puntu irabazten baititu kategoria horrek 2. galdetegitik 3. era).



2.2. Ahobiziak

Jarraian agertzen diren datuek *ahobizien* hizkuntza joerak eta horien bilakaerak adierazten dituzte.

1. *Ohar metodologikoak* atalean azaldu den moduan, laginean dauden *ahobizien* kopurua altua izanik, datu orokorren (lagin osoaren) eta *ahobizien* emaitzak oso antzekoak dira. Ez da arritzekoa, beraz, *ahobiziei* zuzenduriko atal honetan aurretik ikusitako joera berdintsuak errepikatuak ikustea.

2.2.1. Generoaren eta adinaren arabera

4. taula

| | Emakumezkoa | Ez-binarioa | Gizonezkoa |
|-----------------|-------------|-------------|------------|
| 16-24 | 249 | 1 | 85 |
| 25-34 | 273 | 0 | 127 |
| 35-49 | 529 | 6 | 244 |
| 50-64 | 213 | 6 | 133 |
| 65etik gorakoak | 18 | 0 | 26 |
| Guztira | 1.282 | 13 | 615 |

Generoari dagokionez, *ahobizien* artean hirutik bi emakumezkoak dira eta ia hirutik bat gizonezkoa. Adinari begiratuta, 35-49 urte artekoak nagusitzen dira gizon eta emakumezkoen artean (emakumezkoetan %41 da adin tarte horretakoa eta %39 gizonezkoetan). *Ahobizien* datuak (4. taula) datu orokorrekin alderatuta (2. taula) ikus daiteke *ahobizien* artean datu orokorretan baino pisu gehiago hartzen dutela gazteek. Zehazki, emakumezkoetan 2 puntu altuagoa da 16-24 urte artekoen proportzioa (%19 *ahobizietan* eta %17 datu orokorretan) bai eta 25-34 urte artekoetan ere (%21 *ahobizietan* eta %19 datu orokorretan). Gizonezkoen artean 1 puntu altuagoa 16-24 urte artekoetan (%13 *ahobizietan* eta %12 datu orokorretan) eta 2 puntu 25-34 artekoetan (%20 *ahobizietan* eta %18 datu orokorretan).





2.2.2. Gaitasunaren arabera

5. taula


| | | Mintzamena | | | | | |
|----------|----------------------|-------------|-------------|----------------|----------------------|------|---------|
| | | Ez naiz gai | Hitz batzuk | Esaldi errazak | Elkarrizketa errazak | Ongi | Guztira |
| Ulermena | Ez naiz gai | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | Hitz batzuk | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | Esaldi errazak | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 |
| | Elkarrizketa errazak | 0 | 0 | 0 | 6 | 41 | 47 |
| | Ongi | 0 | 0 | 3 | 122 | 1737 | 1862 |
| | Guztira | 0 | 0 | 3 | 128 | 1779 | 1910 |

5. taulari erreparatu, ikus daiteke *ahobizien* artean nabarmenki nagusitzen direla euskaraz «ongi» mintzatu eta ulertzen dutenak (1737 lagun, *ahobizi* guztien ia %91 osatzen dute). Askoz kopuru txikiagoan, jarraian datoz «ongi» ulertu eta «elkarrizketa errazak» izateko gai direnak (122 kide, *ahobizien* % 6,3 osatzen dutenak). Esan liteke ulermen eta mintzamen maila altuko pertsonak osaturiko taldea izan dela *ahobiziena*.



36

2.2.3. Motibazioaren bilakaera






15. grafikoak adierazten du *ahobiziek* euskaraz hitz egiteari ematen dioten garrantzia maila. Ehunekotan islatzen da erantzun bakoitza hautatu duen *ahobizien* proportzioa.

Ahobiziek euskaraz hitz egiteari ematen dioten garrantzia maila (15. grafikoa) datu orokorrekin alderatzen bada (1. grafikoa) oso antzekoak diren joerak ikus daitezke. *Ahobizien* artean ere nagusi dira euskaraz hitz egiteari garrantzia «oso handia» eta «handia» ematen dietenak, eta joera hori zertxobait hazten da Euskaraldian zehar (bi kategoriak kontuan izanik, lehen galdetegian %94 izatetik bigarren galdetegian %96 izatera igaroaz). Hiru hilabete igaro ostean %93an mantentzen da bi kategoria horien maila («oso handia» %56 eta «handia» %37).

2.2.4. Hizkuntza jokaeraren bilakaera

A. ULERTZEN DUTENEKIN EUSKARAZ




16. grafikoak adierazten du *ahobiziek* euskaraz ulertzen duten pertsonen artean zenbati egiten dioten euskaraz. Ehunekotan islatzen da erantzun bakoitza hautatu duen *ahobizien* proportzioa.





Datu orokorretan ikus daitekeen moduan (2. grafikoa) *ahobizien* artean ere euskaraz dakiten pertsona «guztiei» eta «gehiengoari» euskaraz egiten dietenak nagusi dira: kasu honetan *ahobizien* ia bi heren daude kategorian horietan («guztiei» %34 eta «gehiengoari» %31). Nagusitasun hori nabarmendu egiten da, ordea, Euskaraldiko 11 egunetan, lehen galdetegian «guztiei» eta «gehiengoari» euskaraz egiten dietenak %65 izatetik, bigarren galdetegian %93 izatera igarotzen baitira. Hiru hilabete igaro ondoren kopuru hori ahuldu egiten da, baina, datu orokorretan gertatu bezala (2. grafikoa), 6 puntuko irabazia ateratzen dute lehen galdetegitik.

B. INGURUKOEN HIZKUNTZA ERABILERA




Ahobiziek haien egunerokoan entzuten duten euskara kopurua adierazten du 17. grafikoa. Ehunekotan azaltzen da erantzun bakoitza hautatu duten *ahobizien* proportzioa.

Datu orokorretan lez (3. grafikoa), *ahobizien* artean ere Euskaraldiak iraun duen bitartean haien inguruan euskara gehiago entzun izana hauteman da. Hala ikus daiteke lehen eta bigarren galdetegietako datuak alderatzen direnean: entzuten duten «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz dela adierazi duten *ahobiziek* 7 puntutan



hazi baitira (lehen galdetegian %40 izatetik, bigarren galdetegian %47 izatera igaroaz). Euskaraldia pasatakoan, ordea, joera horrek atzera buelta izan du eta hasierako kopuruak berreskuratu dira, lehen neurketari 2 puntuko aldea ateriaz.

C. NORBERAREN HIZKUNTZA ERABILERA




Ahobiziek haien egunerokoan erabiltzen duten euskara kopuruari erreparatzen zaio 18. grafikoa. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *ahobizien* proportzioa.


Emitza orokorrekin gertatu bezala, *ahobizietan* argi ikus daiteke Euskaraldiak euskara erabiltzeko joera areagotzea ekarri duela. Kasu honetan, lehen galdetegiko emaitzekin alderatuz, «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten dutenen kopurua 19 puntutan hazi da Euskaraldian (bi kategoriak elkarrekin kontuan hartuta %46tik %65era igaroaz). Hiru hilabete igaro ondoren kopuru horiek baretu egiten dira, baina 1. neurketarekin alderatuz 4 puntuko aldea ateratzen dute.

D. ERABILERA EZAGUNEKIN

Ondoko grafikoetan *ahobiziek* gizarte eremu desberdinetako haien ezagunekin erabili duten euskara kopurua adierazten da. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *ahobizien* proportzioa.




Kasu honetan ere datu orokorretan (5. grafikoa) eman diren joera berdintsuan antzeman daitezke *ahobizien* emaitzetan. Familiari dagokionez, Euskaraldia abian jarri aurretik *ahobizien* erdiak zuen «dena» edo «erdia baino gehiago» euskaraz egiteko joera. Kopuru hori handitu egiten da ekimeneko 11 egunetan eta etxe giroan «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten dutenak 14 puntu hazten dira ekimenaren eraginez (bi kategoriak kontuan izanik %51 izatetik %65 izatera igaroaz). Epe luzera joera hori baretuaz doa, baina ez da irabazitako guztia galtzen, 2 puntuko abantaila ateratzen baitio hasierako neurketari.




Parte hartzaile guztien datuetan ikusi bezala (6. grafikoa), *ahobizien* artean ere agerikoa da Euskaraldiak lagunartean izandako eragina, esparru sozial hau izanik ekimenak proposatutako aldaketak hoberen egonkortu dituen ingurunea. Ekimenaren hasieran euskaraz «dena» eta «erdia baino gehiago» egiten zutenak %37 izanik, kopuru hori ia bikoiztera iritsi da 2. galdetegian (%64). Hilabeteak igarota galera bat antzeman badaiteke ere, euskaraz «dena» eta «erdia baino gehiago» egin dutenen kopurua 5 puntutan hazi da 1. galdetegiarekin alderatuz. Uler daiteke, beraz, *ahobizien* lagunarteko harremanetan euskarazko hartu-emanak finkatzen lagundu duela ekimenak.

21. grafikoa: **Lantokian (%)**



Ahobiziek lantokian emandako bilakaerak ere parte hartzaile orokorren datuei erantzuten die (7. grafikoa). Kasu honetan ikus daiteke lantokian «dena» edo «erdia baino gehiago» euskaraz egiten duten *ahobiziak* 6 puntu hazi direla Euskaraldian zehar (bi kategoriak kontuan izanik %46 izatetik %51 izatera igaroaz). Joera horrek atzera egin du hiru hil igarotakoan, baina hasierako neurketatik 2 puntuko irabazia atera du.




Ikaslekuan Euskaraldiaren eraginez eman diren aldaketak txikiak izan dira: ikaslekuan «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten dutenen kopurua 3 puntu igo da ekimena ostean (bi kategoriak kontuan izanik %35etik %38ra). Baina aldaketa horiek ez dute epe luzera mantentzerik lortu, eta hasierako kopurura itzuli dira hiru hilabete igaro ostean.

Laburbilduz, *ahobizien* datuak parte hartzaile guztien datu orokorrekin alderatuz gero ikus daiteke esparru sozial desberdinetako hizkuntza ohituren joera nagusiak errepikatu egiten direla. Hala, datu orokorretan bezalaxe, *ahobizien* artean ere nabarmentzen da esparru formal eta informalen arteko aldea. Zehazki, lagunartean antzematen da euskararen aldeko hizkuntza ohitura aldaketa iraunkorrena (hiru hilabete pasa eta gero ere 5 puntuko irabazia izan duena) eta ikaslekuan, aldiz, ahulena; Euskaraldiaren eragina gutxien sumatu dena eta haren ondorioak epe luzera guztiz galdu dituen.



E. ERABILERA EZEZAGUNEKIN




44

23. grafikoa erakusten du *ahobiziek* haien egunerokoan topatzen dituzten ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko jokaeraren maiztasuna. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *ahobizien* proportzioa.

Ahobiziek ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko joera areagotu dute Euskaraldian. Euskaraz «beti» edo «askotan» zuzentzen direnen kopurua ia bikoiztu egin da 11 egunen ondoren (bi kategoriak kontuan hartuz % 36tik % 70era igaroaz). Eta epe luzera begira modu indartsuan egonkortu da joera hori, lehen galdetegiarekin alderatuta 15 puntu hazi baita euskaraz «beti» edo «askotan» egiten dutenen kopurua (bi kategoriak aintzat izanik % 36tik % 47ra).



F. ERABILERA NORBERE MINTZATZEKO GAITASUNAREN ARABERA



24. grafikoan *ahobiziek* duten mintzatzeko gaitasunaren arabera euskara erabiltzeko duten joera nolakoa den agertzen da. Kasu honetan, 10. grafikoan bezala, «ulertzen dutenekin euskaraz egin» aldagaia kontuan hartuz osatu den *indizea* baliatu da erabilera adierazteko. Emaitzak 0-100 eskalara daude ekarriak non 100 «euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitea» den eta 0 «euskaraz ulertzen dutenen artean inori euskaraz ez egitea» den.

Emaitza orokorretan antzeman bezala, *ahobizien* artean ere «ongi hitz egiten» dutenak dira euskaraz ulertzen dutenekin euskara gehien erabiltzen dutenak (68-93 puntu artean dabilta). Maila baxuagoan bada ere, «elkarrizketa errazak» izaten dituztenek «ongi hitz egiten» dutenen bilakaera berdintsua izan dute Euskaraldian. Ekimeneko 11 egunen ostean, euskaraz dakiten haien ezagunekin euskara erabiltzeko joera zabaldu egin da nabarmen (29tik 76ra igaroz), «ongi hitz egiten» dutenen hasierako maila (68) gaundituz. «Elkarrizketa errazak izateko gai» direnek izan dute, hain zuzen ere, bilakaera gorabeheratsuena: Euskaraldian asko irabazi badute ere, hiru hil pasa eta gero asko

4. 24. grafikoan ez dira mintzatzeko gaitasun guztiak adierazten. Izan ere, 5. taulan ikus daitekeen moduan, kategoria batzuk oso lagin txikia dute («ez naiz gai», «hitz batzuk» eta «esaldi errazak») eta horiek grafikoko datuak desitxuratzea eta interpretazio akastunak egitea dakarte. Hartara, kasu honetan «elkarrizketa errazak» edukitzeko gai direnen eta «ongi» mintzatzeko direnen emaitzak jasotzen dira.




galtzera iritsi direlako. Edozein kasutan, hasieran baino puntuazio hobea lortu dute indizean (29 izatetik 43 izatera igaro dira), euskaraz aritzeko joera bereganatu duten *ahobiziak* badaudela ageriko eginez. Berdina gertatu da «ongi hitz egiten» dutenen artean ere, irabazi apalagoak izan badituzte ere (68tik 73ra) 1. galdetegian baino puntuazio hobea lortu baitute 3. galdetegian.

G. ERABILERA SOLASKIDEAREN GAITASUNAREN ARABERA

Jarraian agertzen diren lau grafikoetan hizkuntza gaitasun eta jokaera desberdinen aurrean *ahobiziek* izan duten jarrerari buruzko informazioa ageri da. Ehunekoetan zehazten da kategoria bakoitza hautatu duen *ahobizien* proportzioa.




46



Euskaraz erraztasunez ulertzen dutenekiko erabilera (25. grafikoa) nabarmen hazi da Euskaraldian zehar. «Beti» eta «askotan» euskaraz aritzen direnen kopuruak ia herena izatetik (%32) ia bi heren izatera igarotzen dira ekimenaren ondotik (%64). Hirugarren galdetegian zifra horrek atzera egiten du, baina hasierako neurketatik 8 puntuko




abantaila ateriaz. Epe luzera, euskaraz erraztasunez ulertzen dutenekin euskaraz egi-
tea da hizkuntza ohitura berriak gehien egonkortu dituen egoera.




Euskaraz ulertzeko zailtasunak duten eledunekin euskaraz aritzea ez da erraza izan. Hala ikus daiteke 26. grafikoko emaitzetan: euskaraz «beti» eta «askotan» aritzen diren *ahobiziak* hamarretik bat dira Euskaraldia hasi aurretik (%10). Zifra horrek gora egiten du nabarmen ekimenaren ondotik, laurdena pasatxo izatera iritsiz (%27). Hirugarren galdetegian, ordea, irabazitakoa ia guztiz galtzen da, hasierako zifretara helduz berriro (%10).

27. grafikoa: **Euskaraz erraztasunez mintzatzen direnekiko erabilera (%)**



Euskaraz erraztasunez mintzatzen den solaskidea topatzeak asko errazten du hizkuntzaren erabilera (27. grafikoa). Hain zuzen ere, halako kasutan euskaraz «beti» eta «askotan» egiten duten *ahobiziak* ia %100 dira neurketa guztietan, Euskaraldiaren eragina apenas antzeman daitekeelarik.




Euskaraz zailtasunez mintzatzen direnekin «beti» edo «askotan» euskaraz aritzen direnak nagusi dira hiru neurketetan (28. grafikoa). Lehen neurketetik hirugarrenera beheranzko joera antzeman daiteke bi kategoria horietan (%80 izatetik %71 izatera igarotzen baitira), eta irabazten ateratzen dira euskaraz «batzuetan» egiten dutenak (lehen galdetegian %16 izatetik hirugarrenean %24 izatera igarotzen baitira).






H. ERABILERA EKIMENAREN BETEKIZUN MAILAREN ARABERA



50

Euskaralditik *ahobiziei* egin zaizkien eskakizunak (lehen hitza euskaraz egitea, euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitea eta txapa egunero jantzita eramatea) zein mailatan bete diren adierazten da 29. grafikoa. Ehunekotan agertzen da betetze maila desberdina izan duten *ahobizien* proportzioa.

Ikus daitekeenez *ahobizien* artean gehiengo batek behar bezala bete ditu ekimenetik eskatu zaizkion konpromisoak: ia bi herenek (%64) «betetze maila oso altua» izan dute eta ia laurden batek (%24) «betetze maila altua».



51

Euskaralditik *ahobiziei* egin zitzaizkien eskakizunak zein mailatan bete diren kontuan hartuz, betetze maila desberdina izan duten *ahobizien* hizkuntza erabilera nolakoa izan den adierazten da 30. grafikoa. Zenbateko hori *erabilera indizea* baten bidez dago adierazia, «ulertzen dutenekin euskaraz» aldagaia kontuan hartuz sortu dena. Emaitzak 0-100 eskalara daude ekarriak non 100 «euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitea» den eta 0 «euskaraz ulertzen dutenen artean inori euskaraz ez egitea» den.

30. grafikoa ikus daiteke ekimeneko betekizunekin izandako konpromiso maila zuzenki lotua dagoela ulertzen dutenekin euskaraz egiteko joerari. Hala, ekimeneko betekizunak «oso maila altuan» bete dituzten *ahobiziak* dira ulertzen dutenekin euskara gehien erabiltzen dutenak (76-99 puntu artean daudenak). Eta aldiz, ekimeneko konpromisoak «maila ertainean» bete dituztenak dute euskaraz ulertzen dutenekin euskara gutxien erabiltzeko ohitura (40-66 puntu artean).

Epe luzera izandako bilakaerari erreparatuz, ikus daiteke joera bertsua izan dutela betetze maila guztiek: Euskaraldian kategoria guztietan hazi egin da euskara erabiltzeko ohitura eta berriro ere atzera jaitsi hiru hil pasatakoan. Aldiz, azken neurketako emaitzek adierazten dute ekimenarekiko betekizun maila desberdin guztietan egon direla aurrerapausoak euskararen erabilerari dagokionean: «maila oso altukoak» 5 puntu igo dira; «maila altukoak» 10 puntu; eta «maila ertainekoak» 3 puntu.

2.3. Belarriprestak

2.3.1. Generoaren eta adinaren arabera

6. taula

| | Emakumezkoa | Ez-binarioa | Gizonezkoa |
|-----------------|-------------|-------------|------------|
| 16-24 | 23 | 0 | 8 |
| 25-34 | 23 | 1 | 13 |
| 35-49 | 143 | 2 | 55 |
| 50-64 | 71 | 0 | 48 |
| 65etik gorakoak | 8 | 0 | 10 |
| Guztira | 268 | 3 | 134 |

Belarripresten artean ere emakumezkoak dira nagusi; zehazki, taldearen bi herenak emakumezkoak dira. Adinari erreparatzen bazaio, 35-49 urte artekoak gailentzen direla ikus daiteke: emakumezkoetan %53,3 (143 lagun) dira adin tarte horretakoak eta gizonezkoetan %41 (55 lagun). Parte hartzaile guztien datu orokorrekin alderatuta *belarripresten* artean pertsona heldu eta nagusiek pisu gehiago hartzen dutela antzeman daiteke: emakumezkoetan, esaterako, 50-64 urte artekoak %26,6 dira (eta emaitza orokorretan %18); gizonezkoetan, aldiz, 50-64 urte artekoak %35 (eta emaitza orokorretan %24).



52

2.3.2. Gaitasunaren arabera


7. taula

| | | Mintzamena | | | | | |
|----------|----------------------|-------------|-------------|----------------|----------------------|------|---------|
| | | Ez naiz gai | Hitz batzuk | Esaldi errazak | Elkarrizketa errazak | Ongi | Guztira |
| Ulermena | Ez naiz gai | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | Hitz batzuk | 1 | 1 | 1 | 0 | 0 | 1 |
| | Esaldi errazak | 0 | 11 | 31 | 1 | 1 | 3 |
| | Elkarrizketa errazak | 1 | 5 | 88 | 112 | 1 | 207 |
| | Ongi | 0 | 0 | 3 | 63 | 85 | 151 |
| | Guztira | 2 | 17 | 123 | 176 | 87 | 405 |



Gaitasunari dagokionez, *belarripresten* artean *ahobizietan* baino aniztasun gehiago aurki daiteke. Ulermenari dagokionez, *belarripresten* %51,1 (207 lagun) «elkarrizketa errazetan» moldatzen da eta %37,2k (151 kide) euskaraz «ongi» ulertzen duela dio. Mintzamenari dagokionez, bost *belarriprestek* batek euskaraz «ongi» moldatzen dela adierazten du (87 pertsona); %43k «elkarrizketa errazak» izateko gai dela aitortu du (176 lagun); eta heren batek (%30) «esaldi errazekin» ez du arazorik.

2.3.3. Motibazioaren bilakaera



Belarriprestek euskaraz hitz egiteari eman dioten garrantzia maila adierazten da 31. grafikoa. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa.


Datuen argitan ikus daiteke *belarripresten* artean euskara erabiltzeari garrantzia «oso handia» eta «handia» ematen dietenak gehiengoa direla hiru neurketetan. Egia da, nolahi ere, *belarriprestek* euskara erabiltzeari ematen dioten garrantzia maila *ahobiziek* ematen diotena baino baxuagoa dela, oro har, eta denborak aurrera egin ahala interes hori ahultzen doala pixkanaka. Hain zuzen ere, garrantzia «oso handia» eta



«handia» ematen dietenak elkarrekin kontuan hartuta, lehen galdetegian %81 osatzen dute, eta hirugarrenean %73,8 puntukoko beherakadaz.

2.3.4. Hizkuntza jokoaren bilakaera

A. ULERTZEN DUTENEKIN EUSKARAZ




Belarriprestak euskaraz ulertzen duten pertsonen artean zenbati egiten dioten euskaraz ikus daiteke 32. grafikoa. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen *belarripresten* proportzioa.

*Ahobiziek*in alderatuta, proportzionalki askoz gutxiago dira ekimena hasi aurretik ulertzen duten «guztietan» eta «gehiengoari» euskaraz egiten dieten *belarriprestak* (%17). Aldiz, Euskaraldiaren eraginez askoz gehiago dira kategoría horietan euskaraz egiteko joera eskuratzen duten *belarriprestak*. Datuen argitan, ikus daiteke bigarren galdetegian 38 puntu igotzen dituztela «guztietan» eta «gehiengoari» euskaraz egiten dietenak (%17tik %55ra igaroz). Hiru hilabete ondoren, joera horri beherakada antzematen zaio



eta erdia izatetik ia laurdena izatera igarotzen dira bi kategorien proportzioak (%23). Hasierako galdetegiarekin alderatuz, ordea, 6 puntuko abantaila ateratzen da azken neurketan.

B. INGURUKOEN HIZKUNTZA ERABILERA




33. grafikoa *belarriprestek* haien egunerokoan entzuten duten euskara kopurua islatzen da. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa.

Belarriprestek ahobiziek baino euskara gutxiago antzeman dute haien inguruan. Bartzuen eta besteen emaitzak alderatzen badira (3. grafikoa), ikus daiteke *belarripresten* artean *ahobizien* artean baina gutxiago direla «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz entzuten dutenak (*belarripresten* artean %10, bi kategoriak kontuan hartuz). Euskaraldia eta gero zifra hori hazi egiten da %19 izatera igaroaz. Goranzko joera berdina erakusten dute entzuten dutenaren «erdia» euskaraz dela dioten *belarriprestek* ere, azken horiek bikoiztu egiten baitira lehen galdetegitik bigarrenera (%13tik %28ra pasatuz).



Azken galdetegian beheranzko joera antzematen da baina ez hasierako puntura bueltatzerainokoa: «dena» eta «erdia baino gehiago» kategoriak batera hartuz 3 puntu ateratzen baitituzte lehen neurketatik.

C. NORBERAREN HIZKUNTZA ERABILERA



Belarriprestek haien egunerokoan erabiltzen duten euskara kopurua. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa.


Ahobizien datuekin alderatzen bada, *belarripresten* hizkuntza joeretan «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz hitz egiten duten kategorietan apenas ikus daiteke mugimendu esanguratsurik. Hain zuzen ere kategoria horietan mugitzen diren pertsonak gutxiengoa direlako. Aldiz, nabarmena da Euskaraldiak euskara gutxien erabiltzen dutenen artean izan duen eragin positiboa. Lehen galdetegian euskaraz «batere ez» egiten zutenak %44 izatetik %12 izatera igarotzen dira 11 egunen buruan, eta euskaraz zer edo zer egiteko borondatea eta ahalegina agerian jartzen da. Izan ere, «erdia baino gutxiago» euskaraz egiten dutenak 11 puntu hazten dira, *belarripresten* erdia izatera igaroz; eta «erdia» euskaraz egiten dutenak 13 puntu gehiago eskuratzen dituzte, %21



izanik. Euskaraldia amaitutakoan joera horiek makaltzen hasten dira, hitz egiten dutenaren «erdia» euskaraz egiten dutenak %11 izatera igarotzen baitira, besteak beste. Baina eskuratutako hizkuntza ohitura berriei eutsi egiten diote askok: horien artean aipagarri «erdia baino gutxiago» hitz egiten dutenak %50 izaten jarraitzen dutela.

D. ERABILERA EZAGUNEKIN

Ondoko grafikoetan *belarriprestek* gizarte eremu desberdinetako haien ezagunekin erabili duten euskara kopurua adierazten da. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa.




57


Ahobizien kasuan gertatu den moduan, *belarripresten* artean ere eragin positiboa izan du Euskaraldiak etxeko hizkuntza erabileran.

Euskaraldiaren hasieran euskaraz «batere ez» hitz egiten zutenak erdia baino gehiago baziren ere (%55) bigarren galdetegian kopuru horrek nabarmen egiten du behera (%27ra jaitsiaz) gainontzeko kategorien mesedetan. Horien artean aipagarri da «erdia

baino gutxiago» hitz egitera igarotzen direnen kasua, 10 puntu egiten baititu gora ekimeneko 11 egunen ostean (%27tik %37ra igaroaz). Hiru hil pasata, euskara erabiltzeko joera baretu egiten da *belarripresten* artean, baina etxekoan arteko harreman batzuk euskaraz egonkortu eta gero: euskaraz «dena», «erdia baino gehiago», «erdia» eta «erdia baino gutxiago» egiten dutenak orotara 9 puntu hazten baitira.




Belarriprestek haien lagunartean ere aurrerapausoak eman dituzte. Kasu honetan nabarmena da euskaraz «batere ez» hitz egiten dutenek Euskaraldian izandako beharakada: lehen galdetegian %56 izatetik %20 izatera igarotzen baitira. Hazkunde aipagarria dute, aldiz, euskaraz «erdia baino gutxiago» egiten dutenak (10 puntuko igoera); «erdia» euskaraz egiten dutenak (14 puntuko igoera) eta «erdia baino gehiago» egiten dutenak (8 puntuko igoera). Azken neurketan moteldu egiten da joera hori, baina Euskaraldiko igoeraren arrastoa utzirik: lagunekin hitz egiten dutenaren «erdia baino gutxiago» euskaraz egiten dutenak 8 puntu hazten baitira lehen neurketatik, eta «erdia», «erdia baino gehiago» eta «dena» egiten dutenak, orotara 6 puntu irabazten dituzte.



Lantokian ere antzeman daiteke Euskaraldiak izandako eragin positiboa. Euskaraz «batere ez» hitz egiten zuten *belarriprestak* %56 izatetik %34 izatera igaro dira ekime-naren ondoren, aldiz, gorantz egin dute gainontzeko kategoriek. Horien artean aipagarri «erdia baino gutxiago» hitz egiten dutenak 12 puntu igo izana. Hiru hil ondoren, jaitsiera antzematen bada ere, badira Euskaraldian irabazitakoa galdu ez duten kate-goriak, horien artean dago «erdia baino gutxiago» hitz egiten dutenena (%31).



38. grafikoa: **Ikaslekuan (%)**




Aurreko esparru sozialetan ez bezala, Euskaraldian zehar ikaslekuan eman diren aurrerapausoak ez datoz «erdia baino gutxiago» kategoriaren hazkundetik, baizik eta «dena», «erdia baino gehiago» eta «erdia» kategorien zabaltzetik. Hau da, ikaslekuan, euskara gehien erabiltzen duten kategoriak dira gehien hazi direnak (hiru kategoriak batera kontuan hartuz %21 izatetik %29 izatera igaroaz). Azken galdetegian ekimenean irabazitakoaren zati batek indarrean jarraitzen duela ikus daiteke, hiru kategoria horietan 4 puntuko aldea ateratzen baitzaio lehen neurketatik (%21etik %25era igaroz).

Laburbilduz esan daiteke, *ahobiziek* bezala *belarriprestek* ere gune sozial informaletan izan dituztela aurrerapauso esanguratsuenak (familian eta lagunartean), bereziki euskaraz batere egiten ez zuten pertsonak izanik hizkuntza ohitura berriak bereganatu dituztenak.



E. ERABILERA EZEZAGUNEKIN




Belarriprestek haien egunerokoan topatzen dituzten ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko jokoaren maiztasuna erakusten da 39. grafikoa. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa.

Euskaraldian, ezezagunekin lehen hitza «beti», «askotan» eta «batzuetan» egiten duten *belarripresten* kopuruak gora egin du. Hiru kategoriak batera hartuta, lehen galdetegian laurdena izatetik (%25), bigarrenean erdia baino zerbait gehiago izatera igaro dira (%53). Horien artean aipagarri da lehen hitza «askotan» egiten dutenen kasua, 13 puntu igo baitira lehen galdetegitik bigarrenera. Hirugarren galdetegian baretu egin da joera hori baina hasieran baino 7 puntu gehiago ateriaz «beti», «askotan» eta «batzuetan» kategorietan (%26 izatetik lehen galdetegian, %33 izatera hirugarrenean).



F. ERABILERA NORBERE MINTZATZEKO GAITASUNAREN ARABERA



40. grafikoa *belarriprestek* duten mintzatzeko gaitasunaren arabera euskara erabiltzeko duten joera nolakoa den agertzen da. Kasu honetan, 10. grafikoa bezala, «ulertzen dutenekin euskaraz egin» aldagaia kontuan hartuz osatu den indizea baliatu da erabilera adierazteko. Emaitzak 0-100 eskalara daude ekarriak non 100 «euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitea» den eta 0 «euskaraz ulertzen dutenen artean inori euskaraz ez egitea» den.

Mintzatzeko gaitasunari erreparatuz, ikus daiteke *ahobizietan* bezalaxe, *belarripresten* artean ere gaitasun handiena dutenek erabiltzen dutela euskara gehien ingurukoekin. Erabilera Euskaraldiak izan duen eragina agerikoa da bigarren galdetegiko emaitzetan: ekimenaren ondotik, gaitasun maila guztietan antzematen da euskara erabiltzeko joera hazi dela. Hazkunde hori nabarmena izan da «elkarrizketa errazak» izateko gai direnen kasuan 46 puntutan igo baitute haien erabilera lehen galdetegitik

5. 40. grafikoa ez dira mintzatzeko gaitasun guztiak adierazten. Izan ere, 7. taulan ikus daitekeen moduan, kategoria batzuk oso lagin txikia dute («ez naiz gai» eta «hitz batzuk») eta horiek grafikoko datuak desitxuratzeko eta interpretazio akastunak egitea dakarte. Hartara, kasu honetan «esaldi errazak» esaten dituztenen, «elkarrizketa errazak» edukitzeko gai direnen eta «ongi» mintzatzen direnen emaitzak jasotzen dira.




(11tik 57ra). Aldiz, *ahobizietan* gertatu den moduan, apalagoa izan da igoera «ongi» hitz egiteko gai direnen artean.

Euskaraldiko gorakadak galerak izan ditu 3. galdetegian, baina hala izanik ere, euskararen erabileran irabaziak antzeman daitezke kasu guztietan. Bereziki igo da «esaldi errazak» esateko gai direnen artean, lehen galdetegiarekin alderatuta 8 puntuko alde atera baitute (2tik 10era).


G. ERABILERA SOLASKIDEAREN GAITASUNAREN ARABERA

Jarraian agertzen diren lau grafikoetan hizkuntza gaitasun eta jokaera desberdinen aurrean *belarriprestek* zein jarrera izan duten zehazten da. Ehunekoetan azalduta dago kategoria bakoitza hautatu duen *belarripresten* proportzioa.




*Ahobiziek*in alderatuta nahiko urria da euskaraz erraztasunez mintzatzen direnekin euskaraz «beti» edo «askotan» egiten duten *belarripresten* portzentaia. Izan ere, Euskaraldia baino lehen *belarripresten* gehiengoak euskara «batzutan», «gutxitan» edo


«inoiz ez» erabiltzen zuen (hiru kategoriak elkarrekin kontuan hartuz %88). Euskaraldian, ordea, euskara erabiltzeko joera indartu egiten da eta bereziki hazten dira «beti» eta «askotan» euskara erabiltzen dutenen kopuruak (5 eta 12 puntu, hurrenez hurren). Hiru hilabetera, ekimeneko 11 egunetan aplikatutako ohitura berriak indarrean jarraitzen dute kasu askotan: «beti», «askotan» eta «batzuetan» kategoriak, esaterako, 14 puntu egiten dute gora (hiru kategoriak kontuan izanik %36 izatetik %50 izatera igaroaz).



Ahobiziei bezala, *belarriprestei* ere kosta egiten zaie euskaraz zailtasunez ulertzen dutenekin euskara erabiltzea. Hain zuzen ere hori da euskara «beti» edo «askotan» gutxien erabiltzen den egoera linguistikoa. Euskaraldia baino lehen, *belarripresten* hiru laurdenak (%75) «gutxitan» eta «inoiz ez» zuen euskara erabiltzen halako kasuan. Kopuru hori, ordea, murriztu egiten da bigarren galdetegian eta erdia baino zerbait gehiago izanik horrela jokatzeko dutenen kopurua (%57). Egoera horretan irabazten ateratzen dira euskara «batzuetan», «askotan» eta «beti» erabiltzen dutenak (18 puntu irabaziz hiru kategorien artean; %26 izatetik %44 izatera igaroz). Azken neurketak erakusten du joera horrek behera egiten duela, baina ez hasierako zifretara bueltatzeraino; «beti», «askotan» eta «batzuetan» euskaraz egiten duten *belarriprestek* 3 puntu irabazten ateratzen baitira.




Euskaraz erraztasunez mintzatzen den solaskidea izateak bultzatzen du gehien *belarripresten* euskararen erabilera. Kasu honetan *ahobiziek* ikusitako joera errepikatzen da *belarriprestekin* ere (nahiz eta proportzio apalagoetan izan). Euskaraz «beti» edo «askotan» egiten duten *belarripresta* 19 puntu hazi dira Euskaraldiari esker (%59tik %70era) eta igoera horrek epe luzera iraunaraztea lortu du gainera (5 puntuko aldea ateriaz bi kategoria horiek batera kontuan hartuz).



Ahobizien joera berdina errepikatuz, belarriprestek ere Euskaraldian zehar euskara gehiago erabili dute euskaraz zailtasunez mintzatzen direnekin: euskaraz «beti» eta «askotan» egiten dutenak 29 puntu hazi baitira ekimeneko 11 egunetan (%45 izatetik %74 izatera igaroz). Azken galdetegian, ordea, ez da lortu irabazitakoa egonkortzerik eta Euskaraldian zehar irabazitakoa ia guttiz galdu da berriz.




H. ERABILERA EKIMENAREN BETEKIZUN MAILAREN ARABERA



Euskaralditik *belarriprestei* egin zaizkien eskakizunak (euskaraz dakitenei haiekin euskaraz erabil dezaten eskatzea eta txapa egunero jantzita eramatea) zein mailatan bete diren adierazten da 45. grafikoa. Ehunekotan agertzen da betetze maila desberdina izan duten *belarripresten* proportzioa.

Ahobizien artean ez bezala, *belarriprestan* betetze maila «altua» eta «ertaina» izan dira nagusi (bakoitzak %32). Horrek adierazten du *belarriprestek* ez dutela lortu haien rolari zegozkion bi betekizunei une oro erantzutea, eta beraz, ezin izan dutela behar zen guztietan txapa jantzi edota solaskideei euskaraz egin ziezaieten eskatu. Nolanahi ere, oso kontuan hartzekoa da *belarripresten* ia laurden batek (%22k) betetze maila «oso altua» izan duela.



68

Euskaralдитik *belarriprestei* egin zitzaizkien eskakizunak zein mailatan bete diren kontuan hartuz, betetze maila desberdina izan duten *belarripresten* hizkuntza erabilera nolakoa izan den adierazten da 46. grafikoa. Zenbateko hori *erabilera indizea* baten bidez dago adierazia, «ulertzen dutenekin euskaraz» aldagaia kontuan hartuz sortu dena. Emaitzak 0-100 eskalara daude ekarriak non 100 «euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitea» den eta 0 «euskaraz ulertzen dutenen artean inori euskaraz ez egitea» den.

*Ahobiziek*in gertatu bezala, *belarripresten* artean ere agerikoa da ekimeneko bete-kizunekin izandako konpromiso maila lotua dagoela ulertzen dutenekin euskaraz egiteko joerari. Betetze maila «oso altua» izan dutenak dira euskara gehien erabili dutenak (44-97 puntu artean), eta alderantziz, betetze maila «ertainen» artean daude euskara gutxien erabili dutenak (9-29 puntu artean).

Betetze maila kategoria guztietan antzeko eragina izan du Euskaraldiak. Ekimenean zehar, kategoria guztietan hazi da euskara erabiltzeko ohitura, eta igoera hori baretu


6. 46. grafikoa ez dira mintzatzeko gaitasun guztiak adierazten. Izan ere, 7. taulan ikus daitekeen moduan, kategoria batzuk oso lagin txikia dute («ez naiz gai» eta «hitz batzuk») eta horiek grafikoko datuak desitxuratzea eta interpretazio akastunak egitea dakarte. Hartara, kasu honetan «esaldi errazak» esaten dituztenen, «elkarrizketa errazak» edukitzeko gai direnen eta «ongi» mintzaten direnen emaitzak jasotzen dira.



egin da hiru hilabete pasatakoan. Kategoria guztietan egon dira irabaziak, eta euskaraz dakitenekin euskara erabiltzeko joerak egonkortu direla uler daiteke horrekin; hasierako zifrekin alderatuta, azken emaitzek erabileran hazkundea egon dela erakusten baitute (7 puntu «betetze maila oso altuan»; 6 puntu «betetze maila altuan»; eta beste 6 puntu «betetze maila ertainean»).

2.4. Ahobizien eta belarripresten arteko harremanak

2.4.1. Ahobizien hizkuntza jokaera ahobiziekin (mintzamina)




Ahobiziek ahobizi txapa zeramatenegi euskaraz zenbatetan hitz egin dieten adierazten da 47. grafikoa. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten ahobizien proportzioa.

Ahobizien artean euskararen erabilera izan da nagusi Euskaraldian zehar. 47. grafikoa argi erakusten du ahobizi ia guztiek elkarri euskaraz egiten dietela «askotan» edota «beti» (bi kategoriak elkarrekin hartuz %98 dira), horien artean nagusi izanik euskaraz «beti» egin dutenak (%88).



2.4.2. Ahobizien hizkuntza jokaera belarriprestekin (mintzamena)




70

Ahobiziek belarriprest txapa zeramatenei euskaraz zenbatetan hitz egin dieten adierazten da 48. grafikoan. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten ahobizien proportzioa.

Kasu honetan ere *ahobizien* joera nagusia euskara «beti» erabiltzea dela ikus daiteke (%68), nahiz eta solaskidea *belarripresta* den kasuetan *ahobizia* denean baino gutxiagok duten joera hori. Nolanahi ere, *belarriprestei* euskaraz «beti» edo «askotan» egin dioten *ahobiziak* %91 izan dira.



2.4.3. Belarripresten hizkuntza jokaera ahobiziekin (mintzamena)




Belarriprestek ahobizi txapa zerratenei euskaraz zenbatetan hitz egin dieten adierazten da. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten belarripresten proportzioa.

Ahobizien datuekin alderatuz, belarripresten artean gutxiago dira ahobiziei euskaraz «beti» eta «askotan» egiten dietenak (%66). Zabaldu egiten da, ordea, «batzuetan» egin dutenen kopurua (%18), ia bostetik bat izateraino.



2.4.4. Belarripresten hizkuntza jokaera belarriprestekin (mintzamena)



72

*Belarriprestek belarriprest txapa zeramatenei euskaraz zenbatetan hitz egin dieten adierazten da. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa.*

*Belarriprestei haien artean euskara erabiltzea kostatu egiten zaiela erakusten dute datuek. Izan ere, solaskidea *ahobizia* denean baino gutxiagok egiten dute «beti» edota «askotan» euskaraz (%58). Gehiago dira, halaber, euskaraz «batzuetan» egiten dutenak (%23) solaskidea *belarripresta* denean.*



3.

DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (laburrean)

Atal honetan, Euskaraldiak Nafarroan izan duen eraginari buruzko datu esanguratsuenak laburbiltzen dira:

- 1.** Emakumezkoak nagusi izan dira, bai parte hartze orokorrean (%66,9) zein *ahobizi* eta *belarriprest* roletariko bakoitzean ere (%67,1 eta %66,1 hurrenez hurren).
- 2.** Adinari dagokionez 35-49 urte artekoak gailendu dira kasu guztietan (%43 parte hartze orokorrean, %41 *ahobizietan* eta %49 *belarriprestetan*).
- 3.** Euskaraldiak euskara erabiltzeko aukerak optimizatzea ekarri du: euskaraz dakiten «guztiei» edo «gehienei» euskaraz egiten dieten pertsonak gehiago izan dira ekimenean zehar (%57 izatetik, Euskaraldian %85 izatera igaro dira). Hiru hilabete igaro ondoren, ohitura berri horiek egonkortu egin dira zenbait kasutan (hirugarren galdetegian %63 izan dira «guztiei» eta «gehienei» euskaraz egin dietenak, lehen neurketarekin alderatuz 6 puntuko hazkundera erakutsiz).
- 4.** Norberaren hizkuntza erabilerak gora egin du Euskaraldian. Hitz egiten duten «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten dutenak gehiago izan dira ekimenean zehar (lehen galdetegian %39 izatetik %57 izatera igaroaz bigarrean). Epe luzera ohitura berri horietako batzuk finkatzea lortu da (hiru hil pasata %43 dira «dena» eta «erdia baino gehiago» euskaraz egiten dutenak, lehen neurketatik 4 puntu haziaz).
- 5.** Euskaraldiak gehiago eragin du eremu informaletan (familiar eta lagunartean) eremu formaletan baino (lantokian eta ikaslekuan).

- 6.** Ekimeneko 11 egunetan hizkuntza gaitasun maila desberdin guztietan areagotu da euskararen erabilera. Epe luzera begira erabilera hori gehiago egonkortu da euskaraz mintzatzeko zailtasunen bat dutenen artean («esaldi errazak esateko» gai edo "hitz batzuk esateko gai» direnen artean).
- 7.** Solaskidearen gaitasuna kontuan hartuz, hizkuntza ohitura aldaketarik handienak «euskaraz erraztasunez ulertzen dutenekin» eman dira. Joera hori *ahobizi* zein *belarripresten* artean ere ikus daiteke.
- 8.** Euskaraldian bai *ahobiziek* zein *belarriprestek* euskara gehiago erabili dute. *Belarriprest* rolak halako betebeharrak espliziturik ez bazuen ere, euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz «beti» eta «askotan» aritu direnak lehen galdetegian %17 izatetik bigarren galdetegian %55 izatera igaro dira. Azken neurraldian behe-rakada antzeman daiteke bi kategoria horietan (euskaraz «beti» eta «askotan» aritzen diren *belarriprestek* %23 izatera igarotzen baitira hirugarren galdetegian). Baina galera egon bada ere, zenbait harreman euskaraz finkatu direla erakusten dute emaitzek (lehen galdetegitik 6 puntuko hazkundera baitago).





EUSKARAREN
EREMU OSOA
2018-2019



OHAR METODOLOGIKOAK

Ikerketa proiektuaren baitan bi iker lerro jorratu dira: kualitatiboa eta kuantitatiboa.

Iker lerro kuantitatiboak Euskaraldiak herritarren hizkuntza ohituren aldaketan eraginik izan duen eta eragin hori nolakoa izan den ikustea du xede. Horretarako, azterketa longitudinal bat egin da, ekimeneko hiru une desberdinetan herritarren hizkuntza ohiturak nolakoak diren neurtu dituen. Neurketa horiek hiru galdetegiren bidez burutu dira, guztiak ere email bidez igorri direnak:

1. Lehenengo galdetegia: Euskaraldia hasi aurretik (2018ko azaroaren 23a baino lehen)
2. Bigarren galdetegia: Euskaraldia amaitu berritan (2018ko abenduaren 3a ondoren)
3. Hirugarren galdetegia: Euskaraldia amaitu eta hiru hilabetera (2019ko martxoan)

Ikerketan hiru galdetegiak bete dituzten pertsonen emaitzak hartu dira soilik kontuan. Izan ere, galdetegi bat edo bi bete izateak parte hartzaileen hizkuntza ohituren in-guruko informaziorik eskaintzen badu ere, hiru galdetegiak bete dituztenen emaitzek baino ez dute ematen Euskaraldiaren uneko zein luzetarako ondorioak neurtzeko eta alderatzeko aukera.

Hau kontuan izan da galdetegien bidalketa egiteko unean. Lehen galdetegia Euskaraldian izena eman duten guztiei igorri zaie; bigarrena, lehena erantzun dutenek bakarrik jaso dute; eta hirugarrena, lehena eta bigarrena bete dutenei baino ez zaie bidali. Horrenbestez, alderdi kuantitatiboa borondatezko lagin handi batean oinarritu da; kideak zoriz aukeratu beharrean haien inizatibaz hurbildu direnen emaitzak jasoz.

1. Lehen galdetegia: Bidalketa 225.154 pertsonari; jasotako erantzunak 45.563
2. Bigarren galdetegia: Bidalketa 45.563 pertsonari; jasotako erantzunak 31.937
3. Hirugarren galdetegia: Bidalketa 31.937 pertsonari; jasotako erantzunak 18.383 (ikerketako lagina)

Azterketa kualitatiboak Euskaraldiaren inguruan sortu diren diskurtso sozialak argitara ekarri nahi ditu, parte hartzaileen (*ahobizi eta belarripresten*) zein ekime-neko antolatzaileen lekukotzak jasoz.

Horretarako, lehenik eta behin, Euskaraldian izena eman duten herriak kontuan hartzen dituen lagin bat osatu da lau aldagai erabiliz: lurraldea, gune soziolinguistikoa¹, hiri/herrien dentsitate demografikoa eta batzordeen jarduera edo aktibitate maila. Horiek konbinatuz 20 herriko² zerrenda egin da³.

1. Arabatik: Gasteiz (Olarizu), Zaldondo.
2. Behe Nafarroatik: Irisarri.
3. Bizkaitik: Lekeitio, Bilbo (Deustu), Bilbo (Otxarkoaga), Santurtzi, Zornotza.
4. Gipuzkoatik: Donostia (Amara Berri), Donostia (Egia), Azpeitia, Ikaztegietza, Beasain, Eibar.
5. Lapurditik: Hendaia.
6. Nafarroatik: Leitza, Baztan, Eguesibar, Burlata, Altsasu.

Saillkatutako herrietako biztanleen iritzia jasotzeko herri horietan egin diren «itxie-ra saioak» probestu dira. Saio hauek Euskaraldia bukatu berritan ekimenari amaiera emateko edota azken balorazioak partekatzeko herrietan antolatu diren bilera edo foroak izan dira. Herri bakoitzean bi saio mota egin dira, oro har: bata antolatzaileen artekoa, eta bestea, herritarrak elkartu dituen. Bilera egunean galdetegi bat banatu zaie bertaratu direnei eta antolatzaile zein parte hartzaileen iritzia jaso dira horien bidez. Guztira 453 laguneren testigantzak bildu dira.

Emaitzak *diskurtsoen analisirako* programa informatiko baten laguntzaz aztertu dira eta Euskaraldiaren inguruan dauden balorazio eta ikuspegiak ezagutu eta sailkatu dira horri esker.

Datozen orrietan, bi iker ildo horietatik ateratako emaitza esanguratsuenen bilduma eskaintzen da.

1. Zer dira gune soziolinguistikoak? Lekuan leku euskaraz hitz egin eta ulertzeko gai diren pertsonen kopurua aintzat hartuz Euskal Herriko hiri eta herriak sailkatzeko modua da. Orotara lau gune soziolinguistiko bereizten dira. Lehenengo gunea, euskaraz dakitenak herritarren %20a baino gutxiago denean; bigarren gunea, kopuru hori %20-%50 artean dagoenean; hirugarren gunean %50-%80 artean dagoenean; eta laugarren gunea, euskaraz dakitenak %80tik gora direnean.

2. Hiriburuen kasuan auzoak unitate independente gisa hauteman dira. Hots, herriak baillitza.

3. Herrien zerrenda 30ekoa zen hasieran, baina arrazoi desberdinak medio ez da herri guztietatik informazioa jasotzerik lortu, eta hasierako zerrenda hori 20 herritara murriztu da azkenerako. Horrek ekarri du hasiera batean aurreikusitako herrien arteko oreka eta aniztasuna aldagai guztietan ezin mantendu izana. Horien artean bereziki kaltetua atera da lurraldearena, Zuberoako herririk ez baita lortu ikerketarako.





2.

AZTERKETA KUANTITATIBOA

Atal honetan azterketa kuantitatibotik ateratako datu adierazgarrienak aurkezten dira, Euskaraldiak hizkuntza ohituren aldaketan izan duen eragina bistaratzeko dutenak.



2.1. Euskaraldia unibertsoaren eta laginaren arteko alderaketa

Ikerketaren laginean 18.383 lagunek parte hartu dute: Euskaraldia hasi aurretik, bukatu berri eta hiru hilabetera galdetegiak haien borondatez bete duten guztiak.

Lagina Euskaraldian izena emandakoekin alderatuz gero ondokoa antzeman daiteke:

- ▶ Lagina zertxobait femeninoagoa da: emakumezkoek 7,8 puntu gehiago dute.
- ▶ «Ahobiziagoa»: ahobizien presentzia 11,5 puntu handiagoa da.
- ▶ Adinean paretsu: Euskaraldiarean unibertsoaren batez besteko adina 42,2 urtekoa da eta laginean 40,4 urtekoa.
- ▶ Lurraldearen banaketan berdina da.

Laginaren inguruan sor daitekeen susmoetariko bat da galdetegiak bete dituzten pertsonak Euskaraldian izena emandakoak baino euskaltzaleagoak direla pentsatzea. Tamalez, hori ezin da zuzenean egiaztatu, ez baitago Euskaraldian izena emandakoekin hizkuntza ezaugarriari buruzko daturik.

Baina bestelako alderaketarik egin daiteke: lehenengo galdetegia soilik bete dutenen (45.563 lagun) eta hiru galdetegiak bete dituztenen artekoa (18.383 lagun). Alderaketa horrek bi datu bistaratu ditu. Batetik, hizkuntza gaitasunean (ulermenean eta mintza-

menean) eta euskarari emaniko garrantzian bi multzoen artean ez dagoela apenas alderik (0,6 eta 1,5 puntuen arteko alde txikia baino ez). Bestetik, hizkuntza erabilerari dagokionean ere bi taldeen emaitzak nahiko antzekoak direla (3,6 eta 6 puntuko aldea baino ez).

Hau kontuan hartuz esan daiteke laginak badituela hainbat alborapen soziologiko eta linguistiko, eta ondorioz, ez duela Euskalaldiaren unibertsoa *guztiz* ordezkatzen. Baina, alborapen horiek txikiak izanik, esan daiteke laginak Euskalaldiaren unibertsoa *nahiko ongi* ordezkatzen duela, eta aski informazio esanguratsua eman dezakeela unibertso horri buruz⁴.

2.2. Abiapuntuko egoeraren argazki orokorra



80

Euskalaldiak herritarren hizkuntza jokoeran ekarri dituen aldaketei heldu aurretik, lagineko partaideen ezaugarriak zeintzuk izan diren argitzeari tartea eskainiko zaio. Izan ere, garrantzitsua da abiapuntuko egoera zein izan den jakitea bertan eman diren aldaketak behar bezala baloratu nahi badira.

2.2.1. Ezaugarri orokorrak

Hiru galdetegiak bete dituztenen tipologiari begiratzen bazaio ondoko ezaugarriak nagusitzen dira:

- ▶ Lurraldetasunari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegokoak dira galdetegia erantzun dutenen gehiengo (%85).

1. taula: Laginaren banaketa lurraldearen arabera

| Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Ipar Euskal Herria | Nafarroa |
|-------|---------|----------|--------------------|----------|
| % 9,3 | % 31,9 | % 44,6 | % 1,7 | % 12,6 |

4. Lan honetan aztertuko diren kategoria guztiek honako baldintza hau betetzen dute: gutxienez 200 lagunekoak izatea. Bestalde, datuen arteko aldeak esanguratsuak dira $p < 0,05$ mailan Bonferroniren Testa aplikatuta. Alde horiek, Cohenen d -aren estatistikoaren arabera txikiak kontsideratuko dira 5 puntu ingurukoak direnean, ertainak 10 puntukoak direnean, eta handiak 20 punturen bueltan.



- Gune soziolinguistikoak kontuan hartuz, 2. eta 3. guneetakoak nagusitzen dira (erantzun dutenen 5etik 4).

2. taula: Laginaren banaketa gune soziolinguistikoaren arabera

| 1 gunea | 2 gunea | 3 gunea | 4 gunea |
|---------|---------|---------|---------|
| %9,5 | %41 | %41,3 | %8,2 |

- Generoari dagokionez, emakumezkoen presentzia da nabarmenena (%70).

3. taula: Laginaren banaketa generoaren arabera

| Emakumezkoak | Gizonezkoak | Ez-binarioak |
|--------------|-------------|--------------|
| %70 | %29,1 | %0,9 |

- Adin tartetan 35-49 urte artekoak dira nagusi (%43,5).

4. taula: Laginaren banaketa adin tartearen arabera

| 16-24 | 25-34 | 35-49 | 50-64 | 65etik gora |
|-------|-------|-------|-------|-------------|
| %14,1 | %17,4 | %43,5 | %22,6 | %2,4 |

- Eta rolari dagokionez *ahobiziak* izan dira gehien parte hartu dutenak (%84,3).

5. taula: Laginaren banaketa eginkizunaren arabera

| Ahobizi | Belarriprest |
|---------|--------------|
| %84,3 | %15,7 |



2.2.2. Hizkuntza ezaugarriak

- **Hizkuntza gaitasun ona duten pertsonak parte hartu dute ikerketan:** lagineko kideen 10etik 9k euskara ulertzeko gaitasun ona du (%91,2) eta 10etik 8 hitz egiteko ongi moldatzen da (%84,8).
- **Euskararen erabilerarekiko ardura duen jendeak erantzun ditu galdetegiak nagusiki.** Euskaraz hitz egiteari emaniko garrantzia baloratzerakoan inportantzia «oso handia» eta «handia» ematen diotenak 10etik 9 dira («oso handia» %47,1; «handia» %46,6).
- **Hiru galdetegiak erantzun dituztenen artean gehienek hizkuntza ohitura aldatzearen prozesua bizi izan dute inoiz.** Erdiak baino gehiagok (%65,3) ezagutu du

Euskaraldiaren aurretik ere zer den hizkuntza ohitura aldatzea (erdatatik euskarara), pertsona gutxi batzuekin ez bada ere (1-5 pertsonekin). Kideen %18,7k esperientzia hori bera izan du baina pertsona askorekin (6 pertsonekin baino gehiagorekin). Eta bada inoiz inorekin hizkuntza ohitura aldatu ez duenik (%15,9).

- ▶ **Euskaraz ulertzen duten ezagunekin euskaraz aritzen direnak gehiengoa dira.** Kideen %36,2k euskararen erabilera irmo eta trinkoa erakutsi du Euskaraldia hasi aurretik ere, «beti edo ia beti» euskaraz egiten baitu euskara ulertzen duten ezagunekin. Erabatekoa da halakoen euskararen erabileraren optimizazioa: aukera eta baldintza egokiak dituzten ia kasu guztietan egiten baitute euskaraz. Kideen %30,3k hain jokaera irmoa izan gabe ere badu euskaraz egiteko joera nabarmena («gehienekin» halaxe egiten baitu) ezagunek euskara ulertzen dutenean.
- ▶ Gauza bat da euskararen erabilera zenbateraino optimizatzen den (euskaraz egitea inguruan norbaitekin euskaraz egiteko aukera dagoenean), eta beste bat norberaren eguneroko harremanetan euskarazko harremanek zenbat toki hartzen duten. Azken horri dagokionez, **kideen erdia euskaraz bizi da guztiz edo nabarmen:** lagineko kideen %27,4k dio bere eguneroko harreman «guztiak edo ia guztiak» euskaraz direla. Eta %29,4k dio euskaraz direla egunero hitz egiten duenaren «erdia baino gehiago».



2.2.3. Katgoria bereziak

Euskaraz mintzatzeko gaitasuna kontuan hartuz parte hartzaileek egin duten rol aukeraketari erreparatzen bazaio 4 katgoria sortzen dira laginean (ikusi 6. taulan katgoria bakoitzaren proportzioa):

1. *Ahobizi euskaldun osoa:* Euskaraz ondo ulertzeko eta mintzatzeko gai dena eta *ahobizi* rolean aritu dena
2. *Ahobizi euskaldun hartzailea:* Euskaraz ulertu baina zailtasunekin mintzaten dena eta *ahobizi* rolean aritu dena
3. *Belarriprest euskaldun osoa:* Euskaraz ondo ulertzeko eta mintzatzeko gai dena eta *belarriprest* rolean aritu dena
4. *Belarriprest euskaldun hartzailea:* Euskaraz ulertu baina zailtasunekin mintzaten dena eta *belarriprest* rolean aritu dena



6. taula: Laginaren banaketa kideen hizkuntza gaitasunaren eta eginkizunaren arabera

| | AHOBIZIAK | BELARRIPRESTAK |
|-----------------------|-----------|----------------|
| EUSKALDUN OSOAK | % 94,9 | % 30,8 |
| EUSKALDUN HARTZAILEAK | % 5,1 | % 69,2 |
| | %100 | %100 |

Euskaraz mintzatzeko gaitasun ona dutenek (testuan *euskaldun oso* gisa izendatuko direnek) *ahobizi* eginkizuna hartzeko joera nabarmena erakutsi dute. Aldiz, mintzamenean nolabaiteko zailtasun edo muga dutenek (testuan *euskaldun hartzaile* lez izendatu direnek) *belarriprest* eginkizunaren alde egin dute bereziki. Hala eta guztiz ere, izan dira joera hori hautsi duten multzo txiki esanguratsuak. Horrela, *belarriprest* batzuk *euskaldun osoak* izan dira (%30,8), eta *ahobizi* batzuk, *euskaldun hartzaileak* (%5,1).



2.3. Hizkuntza jokaeraren bilakaera

Atal honetan Euskaraldiaren 11 egunetan parte hartzaileen hizkuntza jokaera nola aldatu den azaltzen da. Horretarako, lehen galdetegia (Euskaraldia hasi aurretik betetakoa) eta bigarren galdetegia (Euskaraldia bukatu berritan betetakoa) alderatu dira. Alderaketaren emaitzari «Aldea 1» esan zaio eta lehenengo galdetegitik bigarren galdetegira hizkuntza ohituretan zer nolako bilakaera dagoen adierazten du. Era berean, denbora epe luzeagoan hizkuntza jokaerarekin zer gertatu den aztertu da. Euskaraldia hasi aurretik kideek zuten hizkuntza jokaera eta handik hiru hilabetera izan dutena alderatuz lortu da emaitza hori («Aldea 2» izena eman zaiona).

Ohar teknikoa:

Hizkuntza jokaeraren neurria eskuratzeko honako prozedura erabili da. Hiru galdetegietan galdera bera egin zaie parte hartzaileei: «Euskaraz dakiten zure ezagunen artean zenbati egiten diezu euskaraz?». Galdera horren erantzun posibleetatik «guztiei edo kasik guztiei» edo «gehiengoari» erantzunak hautatu dituzten pertsona kopurua zenbatu da. Zenbaki horrek adierazten du zenbat jendek duen euskaraz egiteko joera solaskideak ere euskaraz ulertzen duenean. Prozesu bera errepikatu da hiru galdetegiekin eta emaitzak haien artean alderatu dira hizkuntza jokaeraren bilakaera aztertzeko.



2.3.1. Hizkuntza bilakaera orokorra: lagin osoa


Lagin osoa kontuan izanik ikus daiteke Euskaraldia abiatzeko unean kideen bi herenek (%66,5) duela euskara ulertzen duten ezagunekin euskaraz jarduteko joera.

Euskaraldiaren 11 egunen ostean aldaketa handia gertatzen da eta euskaraz dakiten ezagunen «gehiengoari» edo «guztiei» euskaraz egiten dietenak hasieran baino askoz gehiago dira (erabilera indizea 20 puntu igotzeraino).

Euskaraldia bukatu eta hiru hilabetera, ordea, atzerako efektua etorri da, baina ez da izan Euskaraldian zehar irabazitako guztia galtzeko adinakoa, erabileraren indizea %72,1aren bueltan geratu baita.



84



*Aldea1: Hamaika egunen ondoren Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

**Aldea2: Hiru hilabete pasata Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du


Ikusten denez, hizkuntza ohiturak astintzearen zeregina aski ongi bete du Euskaraldiak 11 egunetan zehar (20 puntuko hazkundea). Hala ere, hizkuntza jokaera berriek denbora eta errepikapena behar izaten dute barneratuak izateko. Euskaraldiaren esku-hartzea oso laburra izan da (11 egun) eta jende askori tarte hori motz gertatu zaio



hizkuntza jokaera berriak ongi finkatzeko⁵. Hala ere, hiru hilabete ondoren oraindik 5,6 puntuko hazkundera antzematen da, eta horrek esan nahi du hainbat harremanetan hizkuntza jokaera berriak finkatzea lortu dela.

2.3.2. Eginkizunaren eta hizkuntza gaitasunaren arabera

Ahobizi eta *belarriprest* eginkizunak kideen hizkuntza gaitasunarekin nahastuz gero, gorago aipatu diren lau kategoria ateratzen dira (*ahobizi euskaldun osoa*; *ahobizi euskaldun hartzailea*; *belarriprest euskaldun osoa*; *belarriprest euskaldun hartzailea*). Neurraldi bakoitzean kategoria bakoitzak zein hizkuntza jokaera izan duen ikus daiteke 3. grafikoan.



85

5. Antzeko metodologia erabilia dokumentatu diren beste esperientzietan epealdiak Euskaraldikoa baino dezente luzeagoak izan dira. Hala, esaterako, lantokietan erabilitako *Eusle* metodologian (Euskaraldiaren metodologiaren iturri nagusietako bat) bi hilabetez luzatzen dira hizkuntza ohituraren aldaketarako esku-hartzeak. Edota Lasarte-Oria herrian egindako «Irten armairutik!» ekimenean (hau ere Euskaraldiaren aurrekari zuzenetako bat) 40 egunez iraun zuen ariketak. Eusle metodologiaz gehiago jakiteko ikusi: Jauregi, P., Suberbiola, P., (2017) *Aldahitz ikerketa, eusle metodologia esperientzien emaitzak 2013-2016* edo <http://www.soziolinguistika.eus/aldahitz>

Ahobizi euskaldun osoak kategoriakoak dira denetan aldaketarik txikiena izan dutenak bai Euskaraldian (16,7 puntukoa) baita gerora aldaketari eusterakoan ere (4,8 puntukoa). Baina aldaketa horiek txikiak izanagatik ere oso esanguratsuak dira. Izan ere, aintzat hartu behar da pertsona horietako askok Euskaraldia hasterakoan jada euskaraz egiteko joera nabaria duela (%76,9k), eta horrenbestez, oso pertsona gutxik daukala hizkuntza jokaera hobetzeko tarterik. Egoera horretan euskararen erabilera 16,7 puntu eta 4,8 puntu igo izana oso kontuan hartzekoa da (proportzionalki aldaketa nabarmenak baitira).


Bestalde, euskaraz egiteko nolabaiteko zailtasunak eduki arren *ahobizi* eginkizuna hartu dutenek erakutsi dute hazkunderik handiena (*ahobizi euskaldun hartzailea* kategoriakoek, alegia). Euskaraldia hasi baino lehen pertsona hauen %27,7k besterik ez du euskaraz egiteko joera, txikia izanik kategoria honetako kideen erabileraren abiapuntua. Baina kopuru horrek 45,6 puntu egiten du gora *ahobizi* eginkizuna hartzearen ondorioz.

Datuei erreparatuz pentsa liteke Euskaraldiak pertsona hauek adoretu dituela eta mintzatzeko zailtasunen gainetik euskarazko portaerari eusteko babes eman diela. Haatik, hauek ere atzera bidea izan dute Euskaraldia bukatu eta hiru hilabetera, baina ez dute inolaz ere orduan irabazitakoa guztiz galdu: hasierako mailarekin alderatuz gero, 13,5 puntuko igoera izan baitute.

Belarriprest figurarekin zerikusia duten kategoriei dagokienez *belarriprest euskaldun hartzailea* kategoria izan da denetan ugariena. Euskaraldia abiatu aurretik kategoria honetakoek euskararen erabilera oso txikia dute: %8,9k soilik du euskaraz egiteko joera euskara ulertzen duten ezagunekin.

Hizkuntza jokaerari begiratuta, ordea, *belarriprest euskaldun hartzaileen* hizkuntza bilakaera oso interesgarria izan da. Nahiz eta Euskaraldian euskaraz mintzatzeko konpromiso espliziturik ez hartu, nabarmen aldatu baita haien praktika. Hala, 33 puntuko gorakada izan dute Euskaraldian zehar, eta ekimena bukatutakoan atzerako efektua gertatu den arren, finean errotuta gelditu den aldaketa 7,9 puntukoa izan da. Aldaketa aipagarria.





*Aldea1: Hamaika egunen ondoren Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

**Aldea2: Hiru hilabete pasata Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du



Belarriprest euskaldun osoen baitan hizkuntza jokaeraren bilakaera ere arrunt interresgarria da. Euskaraldia hasi aurretik multzo honen erdiak euskaraz egiteko joera du (%57,6k) baina proportzio horrek 24,9 puntuko gorakada izan du Euskaraldian zehar, eta hiru hilabetera oraindik 7,5 puntuko hazkundeak irauten du.

Euskaraldiaren eraginak *belarripresten* euskarazko jokaera aktiboa areagotzeko balio izan duela berresten da datu hauetan⁶. Ikus daiteke *belarriprest* rola ez dela zertan *euskaldun hartzaileetara* mugatu behar, *euskaldun osoak* direnentzat ere emankorra izan baitaiteke horiek gero eta euskara gehiago egin dezaten. Era berean, euskaldun hartzaileek ere *ahobizi* rola har dezaketela erakusten dute datuek. Ez du zentzu handirik, beraz, *belarriprest* rola *euskaldun hartzaileekin* estuki lotzea edota *ahobizi* rola

6. Datuek ere iradokitzen dute agian Euskaraldiaren unibertso osoan izandako hizkuntza jokaeraren aldaketa handiagoa izan dela lagineko datuek erakusten dutena baino. Lagineko azterketak aditzera ematen du *belarripresten* hizkuntza bilakaera handiagoa izan dela (*Aldea1*: 30,5 puntu, eta *Aldea2*: 7,8 puntu) *ahobiziena* baino (*Aldea1*: 18,2 puntu, eta *Aldea2*: 5,2 puntu). Baina laginean *ahobiziek* Euskaraldian baino errepresentazio handiagoa dutenez (11,5 puntukoa), alborapen horrek indartzen du *ahobizien* joerek datu orokorretan duten pisua. Hortaz, hizkuntza jokaeraren aldaketa txikiagoaren pisua gehiago islatzen da.



euskaldun osoekin. Rol horien aberastasuna hizkuntza gaitasunetik harago baitoa, hizkuntza jokaera moldeei lotuz.


Euskaraldiaren dinamika orokorrak baldintza kolektibo eta masiboak sortu ditu euskarazko komunikazioa errazteko, eta dinamika orokor horren zurrunbiloan *ahobiziek* bezala *belarriprestek* ere etekina atera dute euskarazko jokaera areagotzeko. Datu hauen argitan, *belarriprest* rola indartu beharko litzateke aurrerantzean, zeregin horrek euskalgintzatik urrun dauden gizarte sektore zabalak Euskaraldira erakartzeko aukerak eskaintzen baitu. *Ahobizi* eta *belarriprest* proportzioen arteko oreka handiagoa eskuratzea izan liteke Euskaraldiaren zabalkunderako ildo interesgarria.

2.3.3. Gune soziolinguistikoaren arabera




88

Gune soziolinguistikoetan eman den hizkuntzaren erabilieraren bilakaerari erreparatuta, joera deigarri bat antzeman daiteke. Euskaraldia hasterakoan euskaraz egiteko ohitura dutenen multzo handiena 4. gunean⁷ kokatzen da (%94,5). Haatik, hartantxe hazi da gutxien multzo bera Euskaraldiaren eraginez: 2,4 puntu 11 egunetan eta 0,5 hiru hilabetera. Joera hau eman izana ez da harritzekoa, bestalde, gune horretan apenas baitago aldaketarako tarterik.



7. Euskaldunen dentsitatea %80a baino handiagoa duten herriak.



***Aldea1:** Hamaika egunen ondoren Euskalrdiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

****Aldea2:** Hiru hilabete pasata Euskalrdiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

3. gunea⁸ izan duen bilakaerak 4. gunean ikusitakoa gogorarazten du. Hots, Euskalrdia hasterako jada altua da euskararen erabileraren indizea, eta prozesuan zehar aldaketa txikiak eman dira.

1. gunean⁹ jazo da Euskalrdian zehar aldaketarik handiena (33,4 puntukoa), eta handik hiru hilabetera ere 6,9 puntuko hazkundea erregistratzen da. Hazkunde handia izatea lotuta dago hasierako euskararen erabilera indizearekin. Izan ere, hasierako neurraldian 1 gunekoen artean %47,9k du soilik ezagun euskaldunekin euskaraz egiteko ohitura. Horrek esan nahi du hizkuntza jokoera aldatzeko tarte nabarmena dagoela.

2. gunean¹⁰ emandako bilakaerak 1. gunean gertatutakoaren antz handia du. Hasierako neurraldian euskararen erabileraren indizea tartekoa izanik, aldaketarako aukerak eskaintzen ditu. Hain zuzen ere, aldaketa horiek eman direla ziurtatzen dute beste bi neurraldiek: Euskalrdian zehar (%28,8) eta handik hiru hilabetera ere (%7,6).

8. Euskaldunen dentsitatea %50-%80 artekoa duten herriak.

9. Euskaldunen dentsitatea %20a baino txikiagoa duten herriak.

10. Euskaldunen dentsitatea %20-%50 artekoa duten herriak.






Hala ere, interesgarria da 2. eta 3. guneen bilakaerak alderatzea, gogoan hartu behar baita bi gune hauetan kokatzen direla lagineko kideen gehiengoa (%82,3). Euskaraldian zehar 2. gunean 3. gunean baino handiagoa izan da igoera, baina hiru hilabetera proportzio horri gehiago kostatu zaio irautea.

Bilakaera honen azalpena hizkuntza eremuen trinkotasunetik etor daiteke. Euskaldunen dentsitatea handiagoa den eremuetan (3. gunean, esaterako), hizkuntza ohituretan egindako aldaketak errazago txerta daitezke harreman sare euskaldunetan, eta ondorioz, errazagoa da denboran zehar horiek iraunaraztea. Aldiz, dentsitate gutxiagoko eremuetan (2. gunean), harreman sare euskaldunen trinkotasuna txikiagoa izan ohi den neurrian, murriztagoa da aldaketak modu iraunkor batez txertatzeko gaitasuna.


2.3.4. Lurraldearen arabera



Lurraldeari dagokionez ikus daiteke Euskaraldiaren abiapuntuan euskaraz egiteko joera dutenen proportziorik altuena Gipuzkoan dagoela (%82,0) eta baxuena, aldiz, Araban (%45,4)¹¹.



¹¹. Iparraldeko hiru lurraldeak kategoriatan bakarrez batu dira kategoriatan bakoitzean 200 lagun baino gehiago edukitzeko baldintza bete ahal izateko. Edozein kasutan, batuta ere oso kopuru txikia osatzen dute (305 lagun) lagin osoko %1,7 besterik ez baitira. Datuok, beraz, tentu handiz irakurri behar dira.



*Aldea1: Hamaika egunen ondoren Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

**Aldea2: Hiru hilabete pasata Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du





91

Bilakaerari erreparatzen bazaio, gune soziolinguistikoetan bistaratu den joera berbera ikus daiteke lurraldeen kasuan ere. Hau da, Euskaraldiaren hasieran euskara gehien erabiltzen duten lurraldeetan eman da aldaketa txikiena (Aldea 1: Ipar Euskal Herrian eta Gipuzkoan). Aldiz, aldaketak handiak izan dira hasierako euskararen indizea baxuagoa den lurraldeetan (Aldea 1: Araban, Nafarroan eta Bizkaian).

Euskaraldia bukatu eta hiru hilabetera apenas ikusi da aldaketarik lurraldeka (Aldea 2), euskaraz egiteko joera dutenen kopuruetan igoera txikiak antzematen baitira kasu guztietan (4,7 puntutik 6,7 puntura bitartekoak).

2.3.5. Adin tartearen arabera

Adin multzoei erreparatuz joera orokor bat ikus daiteke (9. eta 10. grafikoak): kideak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta erabilera indize txikiagoa Euskaraldia hasi aurretik, baina aldaketa handiagoa Euskaraldian zehar. Edo atzekoz aurrera esanda, kideak zenbat eta zaharragoak izan orduan eta altuagoa euskararen erabilera Euskaraldia abiatu baino lehenago, baina aldaketa txikiagoa Euskaraldian zehar.



*Aldea1: Hamaika egunen ondoren Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du
**Aldea2: Hiru hilabete pasata Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

Adin tarte guztietan hiru hilabetera gelditu den aldaketa antzekoa da (3,6 eta 6,5 puntu bitartekoa). Horrek esan nahi du, besteak beste, adinean zenbat eta gazteagoak izan orduan eta hizkuntza bilakaera gorabeheratsuagoa dela. Hau da, gazteen hizkuntza jokaera gehiago aldatu da Euskaraldian zehar, baina baita atzera gehiago egin Euskaraldia bukatutakoan ere.

Hipotesi gisa esan daiteke hizkuntza jokaeraren aldaketa handiek, besteak beste, esku hartze luzeagoa edo ariketaldi zabalagoa behar dutela jokaera gerora egonkortzeko.






Gazteak gauza izan dira Euskaraldiaren 11 egunetan hizkuntza ohitura astindu eta jo-kaera berria probatzeko, baina ez dute hori egonkortzeko aski denborarik izan.

2.3.6. Generoaren arabera

Generoa aintzat hartzen bada ikus daiteke aldaketaren neurriak eta proportzioak oso antzekoak direla emakumezko eta gizonezkoen artean¹². Euskaraldia hasi aurretik euskaraz egiteko ohiturari dagokionez oso kopuru antzekoetan dabilta batzuk zein besteak (ikusi 11. grafikoa). Hala emakumezkoen %67k dio euskaraz ulertzen duten eza-gunekin euskaraz egiteko joera duela, eta gauza bera dio gizonezkoen %64,8k.



*Aldea1: Hamaika egunen ondoren Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

**Aldea2: Hiru hilabete pasata Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

Euskaraldian zehar gizonezkoek 21,8 puntuko igoera izan dute aipaturiko euskararen erabilerearen indizean, eta emakumezkoek 19,5 puntukoa (ikusi 12. grafikoa). Hiru hi-

12. Ez binarioak kategorია ez da aztertu 200 lagun baino gehiago izatearen baldintza betetzen ez duelako.



labetera irauten duen aldaketa ere antzekoa da bientzat: 6,7 puntuko aurrerapena gizonezkoentzat, eta 5,3 puntukoa emakumezkoentzat.

Genero aldagaiaren eragina argia izan da Euskaraldian parte hartzeko garaian (6/4 proportzioan emakumezkoen aldera), eta baita ikerketaren galdetegiak betetzeko garaian ere (7/3 proportzioan emakumezkoen aldera). Baina behin Euskaraldiaren eremuan kokatuz gero, ez dirudi generoaren aldagaiak aldeak markatu dituenik emakumezkoen eta gizonezkoen hizkuntza jokaeran (beti ere ikerketa honek darabilen euskararen erabileraren indizeari dagokionez)¹³.

2.4. Euskararen presentzia norbere egunerokoa

Hizkuntza jokaeraren azterketa egiteko orain arte erabilitako irizpidea hau izan da: «Hiztunek nola jokatzeko dute solaskideak euskaraz ulertzen duenean». Hemendik aurrera, aldiz, euskararen erabilerari beste ikuspuntu batetik helduko zaio eta «hiztunen eguneroko bizitzan euskarak zer pisu edo presentzia duen» hartuko da kontuan. Datu horri esker ikus daiteke egunerokoa zenbat pertsona bizi den nagusiki euskaraz.


Euskaraldia hasterakoan lagineko kideen erdia baino gehiagok ditu bere eguneroko harreman «guztiak» edo «gehienak» euskaraz (%56,8k). Proportzio hori 16,1 puntutan hazi da Euskaraldian zehar eta hiru hilabetera joera makaldu den arren, kopurua altuagoa da hasieran baino (3,6 puntutan).

Gizarte eremuei erreparatuz gero Euskaraldian izaniko aldaketarik handiena «lagunartean» gertatu da (21,2 puntukoa). Esparru hori da, hain zuzen ere, Euskaraldia hasterakoan eremu guztien artean euskararen presentzia baxuen duena (%47,3). Gainontzeko eremuei dagokionez, pisu handiagoa du euskarak horietan (%58,5 «lantokian», %58,9 «familiar», eta altuena %69,5 «ikastetxean»), aldiz bertan eman den aldaketa ez da hainbestekoa izan (11 punturen bueltan kasu guztietan).

Hiru hilabetera aldaketaren arrastoa gelditu da, nahiz eta hori txikia izan: nabariena «lagunartean» (5 puntu), eta murriztena «ikastetxean» (2,2 puntu). Pentsatzekoa da gizarte eremu hauetan harremanik gehienak ezagunen artekoak izaten direla, eta beraz, hizkuntza araua honezkero finkatuta daukaten harremanak direla.

13. Laginak Euskaraldiko unibertsoak baino soslai femeninoagoa dauka (7,8 puntu gehiago, alegia). Baina datu hauen argitan gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza jokaera eta hizkuntza bilakaera paretsua izanik, ez dirudi laginaren genero alborapenak kalte egiten dionik hizkuntza jokaeraren azterketari.






*Aldea1: Hamaika egunen ondoren Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du


**Aldea2: Hiru hilabete pasata Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du



95



16. grafikoa:
Erabilera gizarte eremuetan eta ezezagunekin
(aldaketaren neurria)



*Aldea1: Hamaika egunen ondoren Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

**Aldea2: Hiru hilabete pasata Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du



Ezezagunekiko harremanetan agerturiko hizkuntza jokaerari dagokionez, ikus daiteke aldaketa indizeak altuagoak direla «familian», «lantokian» edo «ikastetxean» baino, bai Euskaraldian zehar (25,6 puntu) bai bukatu eta hiru hilabetera ere (8,3 puntu).

Badirudi hizkuntza jokaera ezagunekin baino ezezagunekin aldatzea errazagoa izan dela. Izan ere, ezezagunekiko harremanak askotan laburrak eta azalekoagoak izan ohi dira, eta harreman berriak izanik, gainera, ez dute ohituraren eta historiaren zamarik. Aldiz, ezagunekiko harremanetan elkarrizketak sakontasun handiagoa du, elkarrekintza tarteak luzeagoak dira, eta harremanaren inertzien osagai afektibo indartsuak jartzten dituzte jokoan.

2.5. Praktika soziolinguistikoa

Euskaraldiak ohiko praktika soziolinguistikoarekin bat egiten ez duten hainbat jokaera bultzatu ditu. Hala nola, ele biko elkarrizketak¹⁴, hizkuntza gaitasun aldetik zailtasunak

14. Solaskideen arteko komunikazio harremanean bakoitzak hizkuntza desberdin bat erabiltzen dueneko.



dituztenekin euskaraz egitea¹⁵, eta abar. Jokaera horietako batzuei erreparatzen zaie atal honetan.

2.5.1. Komunikazio egoerak

Solaskideen hizkuntza gaitasun eta jokaera desberdinen aurrean zer jarrera hartzen duten galdetu zaie parte hartzaileei. Lau egoera planteatu dira:


1. Solaskidea euskaraz mintzatzen da eta euskaraz egiteko erraztasuna duela nabaritzen zaio.
2. Solaskidea euskaraz mintzatzen da baina euskaraz ongi egiteko zailtasunak dituela nabaritzen zaio.
3. Solaskidea erdaraz mintzatzen da baina badakigu euskaraz ongi ulertzen duela.
4. Solaskidea erdaraz mintzatzen da eta badakigu euskaraz erdizka ulertzen duela.

Ele bakarreko harremanetan, hau da, solaskideak haien artean euskaraz komunikatzen direnean solaskidearen mintzatzeko gaitasunak era nabarmenean eragiten du hiztunaren hizkuntza jokaeran (ikusi 17. grafikoa). Solaskidea elkarrizketan euskaraz mintzatzenean eta, gainera, erraztasunez egiten duela antzematen zaionean, lagineko *euskaldun oso* ia guztiek (%99,5ek) euskara darabilte. Aldiz, solaskideari mintzatzenean bitartean euskaraz egiteko zailtasunak igartzen bazaizkio, euskaraz egiteko joera duten *euskaldun osoen* portzentajea jaisten da (%78,4).

Ele biko elkarrizketaren eremuan, alegia, solaskideak bi hizkuntzetan komunikatzen direnean, euskarari eusteko joerak ere nabarmenago egiten du behera. Solaskideak euskaraz ulertzeko gaitasun ona duela jakinik ere erdaraz mintzatzenean bada, *euskaldun oso* gehienek nahiago dute erdaraz aritu, eta gutxiengoak baino ez dio euskarari eutsiko (%39,9k). Joera hau indartzen da erdaraz mintzatzenean gain solaskideak euskaraz erdizka ulertzen duela uste bada. Kasu horretan *euskaldun oso* ia guztiek nahiago dute erdaraz aritu, eta hamarretik batek baino ez du euskara hautatuko (%10,2k).

Antzeko mailakatzea antzematen da *euskaldun hartzaileen* kasuan ere, proportzioak *euskaldun osoen* aldean nabarmen txikiagoak diren arren.



15. Euskaraz ongi ulertzen ez dutenekin edo mintzatzeko orduan zailtasunak dituztenekin euskaraz aritzea.



Euskaraldian zehar eta hiru hilabete pasata izaniko hizkuntza jokaeraren bilakaerari dagokionez, honako datu hauek azpimarra daitezke (18. eta 19. grafikoak).

Lehenengo komunikazio egoeran (solaskidea euskaraz erraztasunez mintzatzen denean) ez da aldaketarik izan *euskaldun* osoen kasuan. Euskaraldia hasterako *euskaldun* oso ia guztiek euskaraz erantzuten diote euskaraz erraztasunez hitz egiten duten solaskideei. Joera hori hasieratik egonkortua dagoenez apenas aldatu da hurrengo neurketetan. *Euskaldun hartzaileen* kasuan, ordea, badago halako egoeratan hizkuntza jokaera hobetzeko tarterik. Euskaraldian zehar 7,9 puntuko hobekuntza izan dute eta handik hiru hilabetera 2,4 puntuan geratu da. Nolanahi ere, aldaketak eman badira ere horiek ez dira oso nabarmenak izan.

Bigarren komunikazio egoeran (solaskidea euskaraz zailtasunez mintzatzen denean) deigarria den joera bat antzeman daiteke, hizkuntza ohituren bilakaeran joera negatiboa ikusten baita. Euskaraldiak ez du apenas eraginik izan solaskideak euskaraz hitz egin arren hitz egiteko zailtasunak igartzen zaizkion kasuetan, ez *euskaldun* osoek eta ez *euskaldun hartzaileek* ez baitute haien jokaera aldatu 11 egunen ostean. Aldaketak hiru hilabete pasata ikusi dira, azken neurraldiko datuen argitan hasieran baino gutxiago egin baitute euskaraz halako komunikazio egoeretan (14,4 puntu gutxiago *euskaldun* osoen kasuan, eta 5 puntu gutxiago *euskaldun hartzaileen* kasuan).



*Aldea1: Hamaika egunen ondoren Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

**Aldea2: Hiru hilabete pasata Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du



Aldaketarik argiena hirugarren komunikazio egoeran eman da (euskaraz badakien arren solaskidea erdaraz mintzatzen denean). Bai Euskaraldian zehar eta bai hiru hilabete ondoren ere solaskideak erdaraz diharduenean euskaraz mintzatzeko prest agertu direnen proportzioak gora egin du. Ele biko elkarrizketa hauetan, ordea, ezinbesteko baldintza da solaskideak euskaraz ulertzeko gaitasun ona izatea. Hala denean *euskaldun osoek* zein *euskaldun hartzaileek* nabarmen areagotu dute beren euskarazko jokaera, bai Euskaraldian zehar (27,2 puntu eta 20,4 puntu, hurrenez hurren), bai eta hiru hilabete ondoren ere (*euskaldun osoek* 4,9 puntu eta *euskaldun hartzaileek* 4,5 puntu).

Laugarren komunikazio egoerari dagokionez (solaskideak erdaraz mintzatu eta euskaraz zailtasunez ulertzen duenean), hizkuntza jokaera hobetzeko nolabaiteko saioak egon dela ikusten da. Hala, *euskaldun oso* eta *euskaldun hartzaile* gutxi batzuek hobetu dute euskarazko jarduna Euskaraldian zehar (hobekuntza 17,9 eta 10,1 puntukoa izan da, hurrenez hurren). Baina hobekuntza ia guztiz desagertu da Euskaraldia bukatu eta hiru hilabetera.

Beraz, esan daiteke ele biko elkarrizketari dagokionez aldaketa esanguratsuak gertatu direla, baldin eta solaskideari euskaraz ulertzeko gaitasun ona antzematen bazaio. Aldiz, solaskideak erdizka ulertzen duenean, apenas dago aldaketarik Euskaraldia bukatu eta hiru hilabetera egindako neurraldian.

**100**

2.5.2. Erraztasun/zailtasunaren hautematea hainbat jokabideren aurrean

Lau hizkuntza jokaerei buruz zer iritzi duten galdetu zaie parte hartzaileei. Ondokoak dira jokaera horiek:


- 1.** *Lehen hitza euskaraz egitea:* ezezagun batekin jarduterakoan lehen hartu-emana euskaraz egitea.
- 2.** *Hizkera moldatzea:* euskaraz zailtasunekin hitz egin edo ulertzen dutenekin aritzean, norberaren euskara egokitu edo moldatzea komunikazioa errazte aldera.
- 3.** *Ele bitan jardutea:* solaskide batek euskaraz eta besteak erdaraz jardutea, biek bi hizkuntzak ulertzen dituztela.
- 4.** *Ohitura aldatzea:* ezagunekin erdaraz finkatutako hizkuntza ohitura aldatzea, euskaraz aritzeko ohitura hartuz.

Euskaraldiaren hastapenean *euskaldun osoentzat* «lehen hitza euskaraz egitea» da jokabiderik errazena («erraza» edo «oso erraza» *euskaldun osoen* %69,7arentzat). Zai-



lagoa iruditzen zaie, ordea, «hizkera moldatzea»; «ele bitan jardutea»; eta guztietan zailena «ohitura aldatzea».



Euskaldun hartzaileei, aldiz, lau jokaerak gauzatzea iruditzen zaie «zaila» edo «oso zaila». Zailtasun horren barruan errazena «hizkera moldatzea» (*euskaldun hartzaileen* % 40,3ri iruditzen zaio «erraza» edo «oso erraza»); jarraian «lehen hitza euskaraz egitea»; ondoren «ele bitan jardutea»; eta «ohitura aldatzea» guztietan konplexuena.



101

21. eta 22. grafikoean ikus daitekeenez hizkuntza jokaera hauen inguruko hautemateetan eman diren aldaketak eta proportzioak orain arte ikusi diren beste aldagaietan emandakoak baino txikiagoak dira.

Mugimendu desberdinak antzeman daitezke. Kasu batzuetan zenbait jokaera hasieran uste zena baino zailagoak direla ikusi da («lehen hitza euskaraz egitea» edota «hizkera moldatzea»). Halakoetan pentsa daiteke Euskaraldian jokaera horiei darizkien hainbat zailtasun bistaratu direla eta hasieran baino hautemate ezkorragoaz amaitzea ekarri duela horrek. Beste batzuen kasuan, ordea, hautemateek erraztasunaren aldera egin dute eta hasieran konplexutzat jotzen zirenak («ele bitan jardutea» eta «ohitura aldatzea») errazagoak edo egingarriagoak bihurtu dira gerora. Hala ere, hautemate baikor hori Euskaraldian baino ez da eman; ekimena bukatuta eta egunerokotasunean murgildu ahala hautemate baikorra ia guztiz desagertu baita, hasierako egoerara itzuliz.



*Aldea1: Hamaika egunen ondoren Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du

**Aldea2: Hiru hilabete pasata Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izan den islatzen du



Euskaldun osoen zein euskaldun hartzaileen kasuan «hizkera moldatzea» izan da atzerako bilakaera izan duen jardueretako bat. Fenomeno honek bat egiten du aurreko atalean ikusi den beste joera batekin (ikusi 19. grafikoan). Aurretik ikusi da nola hainbat parte hartzailek euskarazko jokoeran atzera egin duen solaskideak euskaraz mintzatzeko zailtasunak dituenen eta hemen ere joera berbera antzematen da. Uste izatekoa da hizkuntza gaitasunari loturiko zailtasunak tarteko direnean «hizkera moldatzeko» ahaleginak beharrezkoak izaten direla. Alde horretatik garbi dago Euskaraldiak ez duela jokabide honetan aldaketarik ekarri.

Beste ezpal batekoa da «lehen hitza euskaraz egitea» jarduerarekin gertatutakoa. Hirugarren neurraldian hau zaila delako ustea areagotzen bada ere, ez dirudi ezkortasun horrek hizkuntza jokoerari eragin dionik: ezezagunekin lehen hitza euskaraz «beti» edo «gehienetan» egiten dutenen kopurua nabarmen hazi baita Euskaraldian zehar, eta handik hiru hilabetera ere oraindik mantentzen da aldaketa positiboa (ikusi 16. grafikoan). Kasu honetan esan daiteke ezezagunekiko harremanetan lehen hitza euskaraz egiteko estrategiak tartea irabazi duela Euskaraldiari esker.





2.6. Euskaraldia barrutik

2.6.1. Eginkizunak bete

Parte hartzaileek txapa identifikagarria soinean eta agerian eramatea eskatu du esplizituki Euskaraldiak. *Ahobizien* %71ek «beti edo kasik beti» eramanean txapa soinean Euskaraldiaren 11 egunetan, eta, beraz, eskakizunaren betetze maila oso altutzat jo daiteke (ikusi 23. grafikoan). *Belarripresten* kasuan, %65k eutsi dio zorrotz eskatutakoari (ikusi 24. grafikoan).

Ahobizien eginkizunak bereziki bi konpromiso dakartza berekin: 1) «Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egitea», eta 2) «Ezezagunei lehen hitza euskaraz egitea». Lehen eginkizunari dagokionez, *ahobizien* %60k zorrotz bete du eskatutakoa (ikusi 25. grafikoan). Bigarren eginkizuna dela eta, *ahobizien* %56k eutsi dio osoki eskatutakoari (ikusi 26. grafikoan).


Belarriprestei jarrera aktiboa izan dezaten iradoki zaie: «eskatu euskaraz egiteko erdaraz egiten dizuten euskaldunei». Baina ez dirudi iradokizuna gauzatzea erraza suertatu denik, horien artean %11k soilik baitio jarrera aktibo honi eutsi diola «beti edo kasik beti» (ikusi 27. grafikoan).





Interpreta daiteke jokaera hau desegokitzat hartu dutela, orokorrean, *belarriprestek*. Hipotesi gisa pentsa daiteke solaskideak berez eta espontaneoki hautatu duen hizkuntza auzitan jarri eta hori aldatu dezan esplizituki eskatzea begirune galera gisa bizi izan dutela. Izan ere, *euskaldun hartzaile* asko euskara kontuetan «azpiko» senti daiteke gaitasun oneko *euskaldun osoen* aurrean. «Azpiko» batek «gaineko» bati hizkuntza jokaera aldatzeko eskatzeak, seguru asko, ongi errotutako gizarte arau indartsu baten edo batzuen urratzea ekar lezake, eta ariketa konplexua izan daiteke hori askorentzat.

Euskaraldiak lantzeko duen eremu interesgarria izan daiteke honakoa. *Belarriprest* ro-lari izaera aktiboagoa eman nahi izatekotan, halako gizarte-arauak urratzeko konpromisoa hartzea izan baitaiteke bidea.



105

2.6.2. Ahobizi eta Belarripresten arteko hizkuntza harremanak


Bigarren galdetegian parte hartzaileei galdetu zaie zein hizkuntza jokaera izan duten *ahobizi* eta *belarriprest* txapa daramatenekin. Galderak bi norabideetan egin dira:

batetik, jakin nahi izan da *ahobiziek* eta *belarriprestekin* zenbat euskara erabiltzen duten hitz egiterakoan. Bestetik, haien ustez *ahobiziek* eta *belarriprestek* haiekin zenbat euskara erabiltzen duten ezagutu nahi izan da. Atal honetan, bigarren norabideko erantzun sortari heldu zaio (28. grafikoa).

Nola hauteman dute parte hartzaileek *ahobiziek* haiekin izandako hizkuntza jokaera? Gogoan hartu behar da *ahobiziek* euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egiteko zeregin esplizitua dutela, eta ondorioz, Euskaraldiko txapa daramaten guztiekin halaxe egin behar izan dutela. Informazio hau, beraz, *ahobizien* eginkizunaren betetze mailaren beste adierazle bat da. Hona hemen datuak:

- ▶ *Ahobizi euskaldun* osoen %95ek dio *ahobizi* txapa dutenek euskaraz egin dietela «beti» edo «gehienetan».
- ▶ *Belarriprest euskaldun* osoen %86,9k dio *ahobizi* txapa dutenek euskaraz egin dietela «beti» edo «gehienetan».
- ▶ *Ahobizi euskaldun hartzaileen* %85k dio *ahobizi* txapa dutenek euskaraz egin dietela «beti» edo «gehienetan».
- ▶ *Belarriprest euskaldun hartzaileen* %68,7k dio *ahobizi* txapa dutenek euskaraz egin dietela «beti» edo «gehienetan».

Datuon argitan, esan daiteke *ahobiziek* solaskidearen hizkuntza soslaiaren arabera ariketaren hizkuntza-araua zorrotzago edo arinago bete dutela, baina beti ere aski maila altuan.





Eta nola hauteman dute parte hartzaileek *belarripresten* hizkuntza jokaera? *Belarriprestek* ez dute euskaraz hitz egitearen inguruko eskakizun espliziturik izan. Beraz, azterketa honetan ikus daitekeena da *belarripresten* berezko erreakzioa euskararen erabileraren aurrean. Datuek honakoa erakusten dute:

- ▶ *Ahobizi euskaldun osoen* %51,4k dio *belarriprest* txapa dutenek euskaraz egin dietela «beti» edo «gehienetan».
- ▶ *Belarriprest euskaldun osoen* %60,8k dio *belarriprest* txapa dutenek euskaraz egin dietela «beti» edo «gehienetan».
- ▶ *Ahobizi euskaldun hartzaileen* %43,1ek dio *belarriprest* txapa dutenek euskaraz egin dietela «beti» edo «gehienetan».
- ▶ *Belarriprest euskaldun hartzaileen* %34,7k dio *belarriprest* txapa dutenek euskaraz egin dietela «beti» edo «gehienetan».

Ikus daiteke Euskaraldiaren bueltan sortu den talde giroaren ondorioz euskarazko jokaera aktiborako grina piztu zaiela *belarriprestei* ere. Komunikazioa zeregin interaktibo eta kolektiboa izanik, haren eragin positiboa jardunean parte hartzen duten alde guztientzat da agerikoa, alde bakoitzaren zereginak desberdinak izan arren. Ikuspegi horretatik azpimarratzekoa da *belarriprest* askok beste *belarriprestekin* aritzerakoan euskaraz egiteko ekimena hartu izana.





3.

AZTERKETA KUALITATIBOA

Atal honetan iker ildo kualitatibotik eskuratutako diskurtso nagusienak laburbiltzen dira. Diskurtso hauek Euskaraldian parte hartzaile izan direnen eta antolatzaile lanetan aritu direnen lekukotzetatik eskuratu dira. Zehazki, bildutako 453 testigantzetatik %46a antolatzaileenak dira eta %55 herritarrenak. Azken horien artean %21 *belarriprestenak* eta %79 *ahobizienak*.



109

3.1. Ekimenaren indarguneak

3.1.1. Dimentsioa eta izaera

Euskaraldia elkargune izan da. Izaera, nortasun, iritzi zein hizkuntza ohitura desberdinak dituzten norbanako, elkarte eta erakundeak bildu ditu eta indar zentripeto bat bailitzan helburu komun baten inguruan elkarlanean jarri ditu guztiak.

Indar horren erdigunean kokatzen dira Euskaraldiaren diskurtsoa eta izaera. Lehenari dagokionez bete-betean asmatu dela iritzi da; **ekimenak «errespetuzkoa», «integratzailea» eta «positiboa» izan den diskurtsoa erabili duela baloratu baita**, hizkuntza komunitateak elkarren aurka jartzetik urruti «*asertibitatean*» eta «*enpatian*» oinarritu dena.

«Mezua eraikitzailea, positiboa, inoren kontra ez zihoana¹⁶».

16. Txostenean agertzen diren aipuen inguruan bi ohar. Batetik, ikerketan parte hartu duten pertsonen aipuei gutxieneko zuzenketa ortografikoak egin zaizkie, ulermenean laguntzeko ezinbestekoak

Ekimenaren izaera praktikoa ere oso positiboki baloratu da. Euskaraldia euskararen erabileran oinarritu izanak, eta ez hainbeste haren babes edo aldekotasunean, «*bertitasuna*» eta «*erakargarritasuna*» gehitu dizkiola aipatu da.

Ondo eraikitako zentro horrek bere altzora erakarri ditu Euskal Herriko txoko desberdinetako hainbat eragile; izaera desberdinetako erakunde, elkarte, talde eta udalak. **Ekimenaren bueltan sortu den lan-sarea eta erakundeen arteko elkarlaguntza oso positiboki baloratu da**, horri esker hartu duen dimentsio zabalak «*ikusgarritasuna*» eta «*zilegitasuna*» eman dizkiola iritzi baita. Oro har, Euskal Herri mailako ekimena iza-teak jendea parte hartzera animatu duen marko erakargarri bezain egonkor bat osatu duela uste da.

«Entitate ofizialen babesa izateak ikusgarritasunean irabaztea ekarri du (...) azpiegitura sendoagoak sortu (...) eta ate asko errez irekitzeko».

Ekimenari esker euskara gai zerrenda sozialen buruan (bir)jarri dela sumatu da, hizkuntzaren auziaz hausnartu eta eztabaidatzeko abagunea eskaini duelakoan baitira parte hartzaileak. Baina euskararen alde errebindikatzeko moduan aldaketa bat proposatzen du Euskaraldiak, haren izaera dinamiko eta parte hartzaileak ohikoak diren aldarrikapen moldeetatik aldentzea ekarri baitu, hori askoz ere atseginago eta erakargarriago eginez.

«Oso ona. Euskaldunak garaia ospatu dugu. Nafarroan euskara beti gai polemikoa izan da (errebindikazio-testuinguruetara elkartuta) eta egun hauetan desberdina izan da. Oso ideia ona izan da. (...) Sentipen positiboak piztu dira».

**110**

3.1.2. Taldetasuna

Ariketa soziala den heinean Euskaraldiak berarekin ekarri ditu joan-etorriko hizkuntza harremanak. *Ahobizi* eta *belarriprestek* nork bere paperean jokatu badute ere, ez dira parte hartzaile isolatuak izan, inguruarekin interakzioan aritu baitira etengabeko jardun kolektiboan. Euskaraz aritzeko ahaleginean eta ahaleginetik norbanakoen artean «*elkarlaguntzak*», «*enpatia*» harremanak eta elkar-kidetzak egon dira eta **lotura horie-**

izan direnak baino ez. Gainontzean, akats gramatikalak egonagatik ere aipuen originaltasuna bermatu nahi izan da, emaitzen interpretaziorako informazio baliagarria dela baloratuta. Bestetik, hemen azaltzen diren aipuak ideia edo diskurtso jakinen adibide gisa jarri dira. Ez da ulertu behar, beraz, hemen aurkezten diren interpretazio eta ondorioak testuko aipu horiek soilik kontuan hartuz atera direnik.



tatik taldetasun sentimendua piztu da (Gutasun bat). Euskaraldian parte hartu duten norbanakoen arteko konplizitate harreman horrek ekimenari zentzua, zilegitasuna eta identitatea eman dizkio eta horren baitan sentitu den norbanakoari helduleku eta babeslekua.

Kasu batzuetan aterki sozial horrek ekimenaren betekizunak errazago erantzuteko aukera eskaini die parte hartzaileei. Batetik, hizkuntza ohituren aldaketa gauzatzeko ingurune ulerkorrago eta adeitsuago batekin aurkitu direlako askotan; eta bestetik, taldean aritzeak babeseta eta legitimotasuna eskaini dielako haien hizkuntza praktiketan.

«Errazagoa iruditu zait taldean aritzea (adibidez lanean ahobizi bat baino gehiago elkarrekin ginenean taldean)».

Beste batzuetan taldetasun horrek beso zabalagoak izan ditu eta hizkuntza praktikak aldatzeko ekimen bat izan baino, **zenbait pertsonarentzat komunitate, kultura eta gizarte batera hurbiltzeko modua izan da**; muga linguistikoek ezartzen dituzten muga sinbolikoak gainditu eta euskal gizartearen «*integratua*» sentitzekoa.

«Me gustaría que este proyecto se volviera a hacer porque creo que es una bonita manera de romper la barrera que supone un idioma, y permite que las personas de fuera se sientan más integradas en la sociedad vasca».



3.1.3. Praktika soziolinguistiko urratzaileak

AHOBIZIAK:

Euskaraldiak ingurune apropos bat sortzea izan du xede, euskal hiztunek euskara erabili dezaten ulertzen duten guztiekin. Testuinguru egoki hori osatze aldera, *ahobizi* gisa jardun dutenen eginbeharretako bat lehen hitza beti euskaraz egitea izan da.

Ikerketan jaso diren lehen mailako testigantzak kontuan hartzen badira (alegia, norberak egin duenaz diharduten aipuak) ekimenaren eskakizunak nahiko ongi bete direla pentsa liteke. Izan ere **ahobizien artean erronka seriotasunez hartu dela** ikus daiteke eta, zailtasunak zailtasun, lehen hitza euskaraz izan zedin ahalegina egin dute.

«Arraroa egin zait lehen hitza euskaraz egitea, baina nire ustez esperientzia polita izan da eta azkenerako lortu dut».

«Erneago ibili naiz, euskaraz edonon lehengo hitzarekin, baina betiko ohiturei jarraitu diet. Beti euskaraz euskaldunekin».

Ahobizien jardunaren gaineko ikuspegia zertxobait aldatzen da, ordea, bigarren mailako testigantzak kontuan hartzen badira (alegia, besteen jarrerak baloratzen dituzten aipuei erreparatzen zaienean). Kasu horretan, agerian jartzen da hizkuntza betekizunei dagokionez **espero zitekeen bezain fin aritu ez diren zenbait ahobizi** egon direla.

«Lehen hitza erderaz egin duten Ahobiziak ikusi ditut».

«Haien artean gazteleraz aritu dira ahobiziak, eta zapuztua geratu naiz».

Lehen hitza euskaraz egiteaz gainera, solaskideak euskara ulertzen duen kasuetan elkarrizketa euskaraz jarraitzeko betekizuna ere bazuten *ahobiziek*. Jaso diren aipuetan antzematen da ahalegin hori ere egin dela eta *ahobiziak* haien egunerokoan euskarari eusteko zinez aritu eta saiatu direla.

«Lehendabizi gaztelaniaz aritzen ginenon artean euskeraz aritzen saiatu ginelako eta oso polita izan da gure arteko rol desberdin hori ezagutzea».

Hizkuntza ohitura aldaketa horiek burutzeko orduan inguru atsegin eta lagunkoi batekin topo egin dute *ahobiziek*. **Euskaraldiaren testuinguruak erraztasunak eman dizkie hiztunei eta ohikotasunean aurkitzen dituzten zailtasun eta oztupoetatik babestu ditu.** Horien artean aipatzen dira, besteak beste, euskaraz aritzea errespetu faltatzat hartzea edo euskara erabiltzearen aurka dagoen testuinguru bat edukitzea ekidin izana.

«Inguruan ikusi dut lehen hitza euskaraz egiteak babes sozial eta zilegitasun bat hartu duela, errespetu faltaren kontua alde batera utzita, lasaiago egin dugu lehen hitza euskaraz».

«Gustura egon naiz nire lagunek ez zidatelako galdetzen ea zergatik euskaraz hitz egiten nuen, normalean euskaraldiaz kanpo euskaraz hitz egiten dudan bakoitzean nire klasekideek aurpegiak jartzen dizkidate eta horrek euskaraz hitz egitea deserosoa bihurtzen du».

BELARRIPRESTAK:

Belarriprestei ere egiteko batzuk iradoki zitzaizkien Euskaralдитik; horien artean solaskideari euskaraz egiteko eskatzea. *Ahobiziekin* gertatu bezala, bildutako diskurtsoak aintzat hartuz ikus daiteke *belarripresten* kasuan ere, zailtasunak egon diren arren, oro har borondate handiz heldu zaiela betekizunei.

Lehen mailako adierazpenak (norberak bere buruaz esaten dituenak) aintzat hartuz ikus daiteke zenbait **belarriprestek** haien inguruko **hizkuntza ohiturak aldaraztea**





eta haiekiko harremanean jendeak euskara gehiago erabiltzea lortu duela. Kasu honetan azpimarragarria suertatzen da ikustea nola *belarriprestek* ingurukoei esplizituki horretarako eskaerarik egin gabe ere, ingurukoek euskaraz egin diezaieten lortu dutela.

«Nire esperientzia zoragarria izan da; izan ere, niri jendeak beti erdaraz hitz egiten zidaten, baina Euskaraldian parte hartu nuenetik aurrera euskaraz hitz egiten didate».

Inpresio bera dute *belarripresten* praktikak kanpotik behatu dituztenek ere, bigarren mailako balorazioetan (norberak besteen jardunaz egindakoetan) *belarripresten* jarrrera eta ahalegina biziki handia izan dela aipatzen baita eta oso begi onez ikusi da haien aldetik erakutsitako kemen eta borondatea.

«Belarripresten esfortzuak nabarmenduko nituzke».

«Gehien poztu edo harritu nauena da inola ere espero ez nituen «belarriprestek» erakutsi duten gogoia eta intentzioa».

Belarripresten betebeharrak esplizitua ez izanagatik ere, **horietako asko ingurukoekin euskaraz hitz egitera animatu da** eta sorpresa atsegina izan dute, oro har, egunero-koan izan ohi dutena baino ingurune lagunkoi eta harkorragoa topatu izanagatik.

«Mi experiencia ha sido muy buena como Belarriprest. La gente me hablaba en euskera desde el principio y eso te obliga a hablarlo también, con la seguridad además de que puedes hablar castellano si no entiendes algo y no sentirte juzgado, porque las personas son conscientes de que estás haciendo un esfuerzo por aprender euskera».

Bai *ahobizi* zein *belarripresten* kasuan hizkuntza aldatzeko egin diren ahaleginak ez dira kasu guztietan puntualak izan. Horren ordez **11 egunez praktikan jarritako aldatzeko gerora ere iraun dutela** ikus daiteke eta etorkizunean ere horiek mantentzeko borondatea antzematen da.

«Euskaraldiak aukera eman zion nire inguruan zegoen askori (neu barne) euskaraz normaltasunez aritzeko hautua egiteko. Nire arreba txikiarekin eta lagun batzuekin orain euskaraz egiten dut, normalizatu egin dugu hizkuntza gure artean».



3.1.4. Hizkuntza erabileraren indarra frogan jarritz

Ahobizi zein *belarriprestek* atera duten irakaspen handienetariko bat izan da hizkuntza ohiturak aldatzeak euskararen alde urrats handiak ematen lagun dezakeela.

«Ikusi dut gure esku dagoela euskararen erabilera bultzatzea, euskeraz bizitzea. Kontzientzia, borondate eta ohitura kontua dela».

Ohiturak aldatzeko giltzatariko bat ele biko elkarrizketak dira. Kasu horietan solaskideetako bakoitzak hizkuntza desberdin batean hitz egiten dihardu eta biek elkar ondo ulertzen badute ere egoera deserosoa izan ohi da, asimetria linguistikoak samindura eta ezinegona sortu ohi baititu. Horrelakoetan, oro har, elkarrizketa orekatzeko joera dago eta solaskideetako batek bestearen hizkuntzara bereganatu ohi du elkarrizketa harmonikoagoa eta erosoagoa izan bidean. Nolabaiteko tiraldia suertatzen da une horretan, bi solaskideek sentitzen dituztelako disonantziak eta hori aldatzeko eta orekatzeko beharra, baina bere hizkuntza aldatzen lehenak galduko du partida, eta beste solaskidearen hizkuntzaren alde definitua geratuko da elkarrizketa. Tiraldi horretan euskarari eustea zen *ahobizien* egitekoetariko bat, deserosoa izanagatik modu oso kontzientean egin dutena.

«Nire hurbileko belarriprest-ekin gehiago aritu naiz euskeraz. Euskeraz hitz egiten ez dutenez, lehenago beti gaztelera aritzen nintzen beraiekin, orain berriz euskeraz. Euskeraz ulertzen dutenekin, nahiz eta beraiek gaztelera hitz egin, euskeraz aritzen ahal naizela ikasi eta ikusi dut».



114

Kasu guztietan horrela izan ez bada ere, tiraldiari eutsi zaionetan emaitza positiboak lortu dira. **Ahobizien ahaleginak solaskideen hizkuntza ohiturak aldarazteko balio izan du askotan** eta solaskideen arteko harreman linguistikoa euskalduntzeko lehen urratsa eman dute horrekin.

«Batzuetan erderaz hitz egiten duten pertsoneri (baina euskaraz dakitenak) euskaraz solastatzen nienez, euskarara pasatzen ziren».

«11 egun hauetan nire lagunek aukera izan dute jabetzeaz nirekin ohitura hartu egin dutela gaztelaniaz hitz egiteaz eta oso zaila egin zaie hizkuntzaz aldatzea. Baina gehien bat harritzen naizena da izugarritzko esfortzuak egin dituztela hizkuntzaz aldatzea eta proiekturarekin jarraitzea, ez dutela jolas bat bezala hartu baizik eta konturatu dira nire kaltetzen ari zidaten gaztelanian hitz egiterakoan, eta horrek asko pozten dit».

3.1.5. Hizkuntza hautemateen aldaketa

Hizkuntza praktikak aldatzeko ez ezik, horien inguruko hautemateak moldatzeko ere balio izan du Euskaraldiak. Izan ere, norberaren hizkuntza ohituren aldaketa bera-riazkoak berekin dakar inguruarekiko bestelako hartu-eman bat, eta horrekin batera



ordurarte normaltzat edo ohikotzat jotzen ziren praktiken gaineko kontzientzia hartze bat. Bistaratu egiten dira praktika zaharraren eta berriaren ertzak, abaguneak eta aukerak, eta horri esker eguneratu egiten da horiekiko begirada. Euskaraldiaren baitan ere estalgabetu dira hizkuntza praktikei loturiko hainbat aurreuste, ekimenak errealtate desberdinez «konturatze» aukera eskaini baitu.

Testuingurua da horien artean aipatzen denetariko bat. Euskaraldiak, eta bereziki txaparen erabilerak, euskaraz dakiten edo ulertzen duten pertsonak identifikatzen lagundu baitu, eta horrekin batera, **euskaraz dakitenen edota ulertzen dutenen komunitatea uste baino zabalagoa dela ikusi da:**

«Polita. Lehenengo hitza euskeraz «taktika» horrekin batera eta txapa jantzita, nire inguruan pentsatzen nuen baino euskaldun gehiago zegoelaz ohartu naiz. Harridura, alaitasuna».

Kasu askotan, gainera, sorpresarik handienak hurbilekoak diren pertsonen aldetik etorri dira, ustez erdaldunak ziren askok euskaraz ulertu zein hitz egiteko gaitasuna badutela ikusi baita harriduraz, eta ordura arteko hizkuntza mapa zabaltzea ekarri du horrek.

«Egia esan, harrituta ere sentitu naiz momentu batzuetan beti erdaraz entzun dudana jendea euskaraz entzuteaz».

Euskal Herriko lurralde edo herri desberdinen egoera soziolinguistikoaz kontzientzia handiagoa hartzeko ere balio izan du Euskaraldiak. Hautemate horretaz mintzo dira ekimenak iraun duen bitartean ingurugiro euskaldunetatik erdaldunagoetara mugitu diren herritarrak. Kasu horietan sorpresa atseginak hartu dira ohikoa baino euskaldunagoa den testuinguru bat begiztatu denean.

«Gasteizen ere izan naiz Euskaraldiko egun batean, eta han bai nabaritu nuela aldaketa, jendea txapa jantzita ikustean inoiz baino Gasteiz euskaldunago bat agertzen zitzaidalako begi aurrean eta kale, tabernetan inoiz baino gehiago entzun nuelako euskara».

«Ni neu Lekeition bizi eta lan egiten dudanetako bat izanda, ez dut gehiegi nabaritu aldaketa, baina bai Bilbo ingurura hurbildu naizenean, jendearen enpatia nabaritu dut, sentsazio bereziak sentitu ditut, euskaldunago sentituz naiz eta harro gainera».

Inguruaz ez ezik, norberaren jardunaz hausnartzeko parada ere eskaini du ekimenak. **Hasiera batean pentsa zitekeena baino euskara gutxiago erabiltzen dutela izan da askoren sentsazioa.** Ohartarazte horrek, gainera, aldaketa kontziente bat bultzarazi du jendartean eta norberaren hizkuntza ohiturez konturatzeaz batera, horiek aldatu edo moldatzeko borondatea erakutsi eta ahalegina egin da:



«Esperientzia ona izan da, lehenengo egunetik ohartu nintzen ohitura txar ugari nituela eta haiek aldatzen saiatu naiz Euskaraldian zehar».

3.1.6. Txapa

Euskaraldiak iraun duen 11 egunetan parte hartzaileetariko bakoitzak *ahobizi* edo *belarripresten* txapa soinean eramatea izan da ekimenaren beste eskakizunetariko bat. Honen inguruan egin diren aipuak ugariak izan dira, eta horien artean bereziki nabarmentzen dira **hizkuntza ohituren aldaketarako ondorio zein eragin onuragarriak izan dituela** azpimarratzen dutenak. Horien artean aipatzen dira, besteak beste, identifikazio zeinu gisa funtzionatu duela (eta beraz, komunitatea erraz identifikatzeko gai-lua izan dela), edota euskaraz aritzeko babeseta edo kemena eman duela.

«Txapak, hamaika egun hauetan, gure lehen hitza beldur gabe euskaraz egiteko nolabaiteko indarra eman digu eta hori da ekintza honetatik gehien baloratzen dudana gauza».



116

3.2. Ekimenaren ahulgune eta zailtasunak

3.2.1. Mezua ongi transmititu ez izana

Ekimenak izan duen ahulgune nagusienetariko bat komunikazioari dagokio. Zehazki, parte hartzaileen artean zabaldua dagoen sentsazioetariko bat da Euskaraldiaren berriz ez dela behar bezain zabal eman eta horrek parte hartzaile potentzial izan zitezkeen pertsona asko ekimenaren berririk gabe gelditzea ekarri duela.

«Informazio falta orokorrean, hots, Euskaraldia bera iragarri da telebista, administrazio, eskola eta gizarte sektoretan baina kaleko jendearek ez zaio guztiz heldu, jendeak ez zekien ondo zertan zetzan».

Bereziki azpimarratzen da **mezua «euskal mundura» mugatu dela** eta horrek euskaltzale edo euskaldunak ez diren bestelako agenteekin elkarlanerako zubi berriak eraikitzea galarazi duela.



«Badut sentsazioa zailtasunak ditugula gure aktibisten zirkulutik haratago joateko. Eta gure zirkulua jadanik aktiboa eta engaiatua da. Benetako arrakasta eta ohituren aldaketa zirkulu zabalagotik etorri da».

Mezua behar beste ez zabaldu izanaz gainera, haren edukia aski argia ez izatea ere leporatzen da. **Ekimenak zekarren konpromiso maila ez dela ulertu** arrangura egin dute zenbait herritarrek, eta euskararen erabileran zentratu ordez, euskararen aldeko-tasuna adierazteko ospakizun gisa irudikatua izanagatik dela aipatzen da.

«Komunikabideek gaiari eman dioten tratamendua, zabala izan bada ere, batzuek euskararen jai itxura eman diote, ekimenaren zentzua, helburuak, desitxuratu».

Euskaraldiaren izaera orokorra ez ezik, ekimenaren baitako **belarriprest eta ahobizien rolen funtzioa** eta ezaugarriak ere **behar bezain ongi ez azaldu izana** kexu egin da. Izan ere desinformazio horrek nahasmendua ekarri du, kasu askotan rolak hizkuntza erabilerari zegozkiola ulertu beharrean euskararen ezagutza mailarekin lotu direlako.

«Ahobizi eta Belarriprest figurak hizkuntza gaitasunarekin lotu dituzte adineko hainbategen, eta hamaika aldiz azaldu arren ez dute ondo ulertu».

Zalantza handiak egon dira rol bat edo beste aukeratzeko garaian eta, jasotako ekarpen batzuen arabera, behin aukeraketa egin ostean ere rol bakoitzaren egitekoak ez dira ongi bete. Kasu batzuetan rolen egitekoa ez delako ongi ulertu, beste batzuetan rol bakoitzak hartu duen balio sinbolikoari begira egin delako horien hautua, norberaren errealitate linguistikoari erreparatu ordez.

«Iruditu zait rolak ez direla oso ondo azaldu eta hasieratik behar zela argiago esan zer jarrera hartuko zuen bakoitzak. Ahobiziak status gehiago izan duela eman du eta horrek euskara zekiten guztiak ahobizi izatea ekarri du. Belarriprestak gutxiago izan dira eta gaitasunarekin oso lotuta egon dira bi rolak. Ez da jakin transmititzen hori».

Erantzunen argitan antzeman daiteke *ahobizi* rolak *belarriprestarenak* baino prestigio gehiago lortu duela jendartean. Euskaraldiko antolaketatik halako neuririk zabaldu ez bada ere, susma daiteke «euskaldun berri» eta «euskaldun zahar» kontzeptu diko-tomikoekin lotu direla rolen esanahi eta funtzioak, besteak beste, azken horiek askoz ezagunagoak direlako gizartean. Irakurketa horretatik, ordea, *belarriprest* rola atera da kaltetuen eta horrek ekarri du parte hartzaileen balantza *ahobizien* alde iraultzea. *Belarriprest* gisa parte har zezaketen hainbat pertsonen zegozien rola ez dute gogoko izan eta ez dute ekimenean izenik eman. Beste batzuek, ordea, nahiago izan dute *ahobizi* gisa parte hartu, nahiz eta rol hori betetzeko baldintza egokiak ez eduki (euskaraz hitz egiten jakitea).



«Uste dut ahobizi behar luketen batzuk belarriprest txapa jaso zutela. Aldiz, benetakoa belarriprest behar luketenak ez dira txapa janztera ausartu».

3.2.2. Engaiamendu falta

Ekimenaz aipatzen den beste hutsunetarikoa bat eskatu diren betekizunei behar bezala ez erantzutea izan da. Utzikeria eta «arduragabekeria» egozten zaie norbanakoei nola erakundeei, ekimenari zor zitzaion konpromiso maila espero zitekeen bezala ez dutela bete iritzi baita.

Erakunde handien jarrera bereziki izan da kritikatua (unibertitateak, komunikabideak, erakunde politikoak...). Ekimena babestu izana onartzen bazaie ere, **hizkuntza erabileran eta ohituren aldatetan urrats gutxi eman dituztela uste da** eta rolen betekizunei behar bezala ez erantzutea aurpegiratzen zaie. Hori horrela, erakundeen parte hartzea «itxurazkoa» izan dela aipatzen da, hizkuntza praktikak aldatzen saiatu baino euskararen aldeotasuna erakusteaz arduratu direlako.

«Instituzioen papera ontzat jo badut ere gehiegizkoa iruditu zait haien jarrera, izan ere «postureo» nahikoa izan dela iruditu zait. Ondo dator Euskaldia bultzatu eta zabaldu nahi izatea baina ez zait iruditu haien lana modu egokian bete dutenik. Horrelako egitasmoak herritarrok sortu bultzatu eta aldatu behar ditugula uste dut beti ere herria euskalduntzeko eta euskara ohiturak sustatzeko mesedetan baldin badira. Euskaldia honetan instituzioak osatzen dituzten ordezkari gehienek konprometuz falta egon dela iruditzen zait».

Norbanako batzuen kasuan ere engaiamendu falta sumatu da. Parte hartzaile batzuk hizkuntza ohituren aldatetak bultzatzeari apenas eman diote garrantzirik eta haien parte hartzea txapa janztera mugatu dute. Halako jarreraren atzean arrazoi desberdinak aipatzen dira; engaiamendu eza norberaren gogo edo interes faltarengatik, edota rolen egitekoa behar bezala ez ulertu izanagatik, horien artean.

«Partaide askok arlo afektibora lotu dira bakarrik, euskararen aldeko beste kanpaina bat gehiago balitz bezala. Ez dute kontuan hartu ariketak berak proposatzen zuen dimentsioa. Duda dut huts egitea ariketaren komunikazioan izan ote den edo engaiamendu eskasean».





3.2.3. Zenbait oztopo hizkuntza aldaketarako

Ekimenarekin engaiatuak egon diren parte hartzaileen artean ere **hizkuntza beteki-zunei uneoro eustea kosta egin da eta zenbaitetan ezin izan dira horiek bete.**

Aipatzen diren arrazoi desberdinen artean usu agertzen denetariko bat norberaren ezintasunena da. «Lotsak», «beldurrak», «inpotentziak» edo «ziurtasun faltak» euskararen aldeko hizkuntza ohituretan lasaitasunez murgiltzea oztopatu dute sarri.

«Aurreiritziak, lotsak, besteek zer esango ote duten... horrek oztopatu ditu zenbait jarrerara hartzea edo ez».

Beste kasu batzuetan solaskidearen ezaugarriek jarri dituzte euskaraz aritzeko trabak. Horien artean agertzen da euskaraz ez dakiten solaskideen kasua. Euskaraz ulertu baina hitz egiten ez dutenekin elkarrizketa elebidunak mantendu behar izatea egiteko aldapatsua izan da. Gorago azaldu bezala, elkarrizketa elebidunek sorrarazten duten deserosotasun eta disonantzia sentrazioak ernegagarriak izan daitezke eta solaskidearen hizkuntzara aldatzeko pultsuari eustea ez da lan makala.

«Kasu pertsonalean berriz, onartzen dut zailtasunak sentitu ditudala euskaraz entzuteko prest eta gazteleraz erantzuteko zegoenari euskera hutsean hitz egitea».

Solaskideak euskaraz jakiteak eta hitz egin nahi izateak, ordea, ez du bermatzen elkarren arteko elkarrizketa erraza izango denik. Izan ere, **solaskidearen hizkuntza maila norberarena bestekoa ez izateak hori erabiltzen jarraitzeko gogoa galgatu dezake.** Elkarrizketa elebidunekin gertatu bezala, beste behin ere ikus daiteke euskara esfortzurik eta zailtasunik gabe erabil dadin elebidunak elkar ulertzea ez dela aski, horretaz gain elkarrizketa «harmoniatsua», arina eta erraza izateak asko laguntzen duela.

«Ni euskaldun zaharra izanik ere, dezente kostatu zait jendearekin euskaraz komunikatzea batik bat zailtasuna dutenekin nahiz eta jakin hori dela aurrera egiteko bide bakarra».

Hizkuntza ohituren aldaketa errazagoa edo zailagoa izatearen beste arrazoietariko bat solaskidearekin dagoen hurbiltasun edota konfiantza maila da. Harremanen munduan ez dago joera orokorturik, ordea, eta zenbaitentzat hurbilekoekin errazagoa izan den eran, beste batzuek ezezagunekin izan dute hizkuntza ohiturak aldatzeko oztopo gutxien.

«Niretzat oztopo handiena izan da ohitura aldatzea. Egunero gazteleraz hitz egiten duzun jendearekin euskeraz hitz egitea zaila izan da».

«Hurbileko pertsonekin gazteleraz hitz egiteko ohitura aldatzea pentsa baino errazagoa egin zitzaidan, bazekitelako ekimen honetan parte hartzen ari nintzela. Gutxitan



*ikusten ditudan pertsonekin edota harreman hain estua ez dudanekin, ordea, zaila-
goa egin zitzaidan».*

Badira, edonola ere, ezagun zein ezezagunekin mantentzen diren elkarrizketetan hizkuntza praktikak baldintzatzen dituzten zenbait irizpide. Solaskideek darabilten hizkuntza aurrez definitua egotea da horietako bat. **Eledunen arteko komunikazio harremanaren hizkuntza aurrezarria dagoenean (ohituraz hizkuntza jakin bat erabili delako, adibidez) hori aldatzea kosta egiten da**, besteak beste, praktika linguistikoa aldatzeak harremana arrotzu eta deserosoago bihurtzea dakarrelako berekin.

«Artifiziala egin zait eta oraindik, zaila egiten zait euskaraz hitz egitea, beti gazteleraz egin diodan lagun minari».

Bestetik, solaskidearen inplikazio maila hartu behar da kontuan. Hizkuntza aurredefinitua dagoen komunikazio harreman batean hori aldatzeko ahalegina eledunetarikoa bakarrak egiten badu, aldaketa gertatzea ez da erraza suertatzen. Aldiz, hizkuntza aurredefinitua egonagatik ere, hori moldatzeko keinuari solaskideak positiboki erantzuten badio eta berak ere ahalegina egiten badu, hizkuntza ohitura aldatzea asko arintzen da.

**120**

«Niretzat oztopo handiena izan da ohitura aldatzea. Egunero gazteleraz hitz egiten duzun jendearekin euskaraz hitz egitea zaila izan da. Nahiz eta euskaraz hasi azkenean gazteleraz aldatzen genuen (...) Baina egun batean nik izebarekin topatu egin nuen eta berak oso ondo hitz egiten du euskaraz; euskaldun zahar bat da. Ikusi zidanean txapa, hasi zen euskaraz hitz egiten. Niretzat ez zen naturala baina saiatu nintzen».

Aipatzen den beste arrazoi bat Euskaraldian parte hartzea da. Ekimenak hizkuntza praktiken aldaketa zilegitu du eta bertako partaide gisa identifikatua izate hutsak hizkuntza ohiturak euskalduntzea erraztu du.

«Hurbileko pertsonekin gazteleraz hitz egiteko ohitura aldatzea pentsa baino errazagoa egin zitzaidan, bazekitelako ekimen honetan parte hartzen ari nintzela».

3.2.4. Gune soziolinguistikoa

Ekimena aurrera eramateko zailtasun handiak ezarri dituen gakoetariko bat testuinguru soziolinguistikoa izan da. Izan ere, **testuinguru oso euskalduneko eta oso erdalduneko jendarteetan ekimenaren balioa ulertzea eta parte hartzeko zein elkarlanerako borondatea piztea asko kosta da**. Batetik, ingurune oso erdaldunetan



ekimenean parte hartzeko baldintzak bete eta interesa izan zezaketenak oso gutxi zirelako; eta bestetik, ingurune oso euskaldunetan haien egunerokotasuna euskaraz bizi duten pertsonen ekimenean parte hartzeari zentzurik ematen ez ziotelako.

«Euskaraldia ez da ezkerraldean asko somatu (Santurtzi)».

«Nire ustez UEMAk ez du mezua behar beste zabaldu udalerrri euskaldunetan. Herri euskaldunetan giroa hotzagoa izan da besteetan baino. Nik neuk bertan gozo gertzeko arriskua ikusten dut».





4.

ONDORIO NAGUSIAK

Euskaraldiak izan duen parte hartze masiboa (225.154 pertsona izena emanda) egundokoa izan da, eta esan daiteke ikerketan parte hartutako kideen kopuru izugarri horrek ez duela gizarte-zientzien esparruan parekorik eduki. Euskal soziolinguistikan gutxitan egin dira halako lagin handiak dituzten ikerketa longitudinaleak, eta horrek babilio eta sendotasun handia ematen die hemen aurkeztutako emaitzei. Egia da erabili den laginak alborapen txiki batzuk badituela (zertxobait femeninoagoa eta «*ahobizigoa*» baita), baina hala ere Euskaraldiaren osotasuna *nahiko ongi* ordezkatzeko duela esan daiteke.

Txostenean jorratutako ideia guztiak atzera ekarri gabe, hona hemen laburpen gisa ondoriorik esanguratsuenak:

- 1.** Euskaraldia ariketa soziolinguistiko gisa planteatu da eta datuen argitan esan daiteke ariketa egoki gauzatu dela. **Parte hartzaileek neurri handian bete dituzte eskatutako eginkizunak. Hobetzeko tarterik egonda ere, parte hartzaile gehienak zinez saiatu dira hartutako konpromisoak betetzen.** Hala, esaterako, *ahobiziek* betetze maila altua izan dute ulertzen dutenekin euskaraz egiteko jardunean, bai eta ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko zereginean ere. *Belarriprestentzat* nekezago suertatu da euskaldunei euskaraz aritzeko eskaera luzatzea, kasurik gehienetan jokabide arrotzat hartu delako.
- 2.** **Parte hartzaileen hizkuntza erabilerari dagokionez aldaketa handiak ekarri ditu Euskaraldiak ariketaren 11 egunetan, eta aldaketari proportzio esanguratsuan eutsi zaio Euskaraldiak bukatu eta hiru hilabetera ere.** Oro har, parte hartzaileen hizkuntza jokaerak nabarmen astindu dira Euskaraldiak iraun duen



123

bitartean. Baina astindutako hori guztia ez da finkatu. Parte hartzaile askok aipatu du testigantzetan ariketa motza geratu zaiola, hamaika egun ez baitira egun asko. Beraz, ez da tarte handirik egon hizkuntza jokaera berriak errotzeko eta egonkortzeko. Hala eta guztiz ere, hizkuntza jokaera berriaren arrasto esanguratsuak gelditu dira Euskaraldia bukatu eta hilabeteek aurrera egin ahala.

- 3.** **Hizkuntza bilakaera orokorrak baino aldaketa handiagoak egin dituzte euskaraz mintzatzeko gaitasun txikiagoa dutenek; euskaraz egiteko ohiturarik gutxien dutenek; eta gune soziolinguistikorik erdaldunetan bizi direnek.** Al-diz, ez dute hainbesteko aldaketarik egin Euskaraldiaren hasieran hizkuntza gaitasun altua erakutsi dutenek; jada euskaraz egiteko joera nabarmena dutenek; eta gune soziolinguistikorik euskaldunetan bizi direnek.
- 4.** **Euskaraldiak hizkuntza jokaeran eragin dituen aldaketak orokorrak izan dira parte hartzaile guztientzat, izan ahobizi edo belarriprest. Denek egin dute aurrera euskararen erabileran. Baina aldaketarik handiena egin dutenak ahobizi euskaldun hartzaileak izan dira.** Ondoren datoz *belarriprest euskaldun hartzaileak*; hirugarrenik, *belarriprest euskaldun osoak*; eta azkenik, *ahobizi euskaldun osoak*. Garrantzitsua da azpimarratzea Euskaraldiak sortutako dinamika orokorrak nola bultzatu dituen *belarriprestak* modu naturalean euskara erabiltzera.
- 5.** **Euskaraldian ahobizi euskaldun osoa kategoria kopurutan guztiz nagusitu bada ere, datuek beste aukera batzuen aberastasuna ere utzi dute agerian:** a) Euskaraz hitz egiteko muga batzuk izan arren, *ahobizi* eginkizunari heltzeko aski adorea izan dutenak (*ahobizi euskaldun hartzailea*); b) Euskaraz hitz egiteko arazorik ez eduki arren *belarriprest* eginkizunari heldu diotenak (*belarriprest euskalduna*) eta c) Euskaraz aritzeko zailtasun nabariak eduki eta *belarriprest* zereginean aritu direnak (*belarriprest euskaldun hartzailea*). Euskaraldiaren dinamika orokorrak kategoria guztien hizkuntza jokaeran izan duen eragin positiboa ikusita, interesgarria litzateke azpimarratzea *belarriprest* figura aberatsaren bidez zein aukera onak zabaltzen zaizkion Euskaraldiari populazioaren sektore berriak euskararen dinamikara erakartzeko.
- 6.** Ikusten da bi mekanismo sakon abiatu dituela Euskaraldiak euskararen erabilerara bultzatzeko garaian. Lehena, gizarte hitzarmenaren mekanismoa. Hau da, **txapa identifikagarriei esker jende askok (ahobiziek bereziki) bultzada handia sentitu du euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko**, eta zehazki, beste txapadunekin jarduteko garaian. Bigarrena, hizkuntza simetriaren mekanismoa. **Hots, batzuek euskara erabiltzeak besteei euskaraz erantzuteko beharra piztu die.** Bi mekanismo horiek elkar elikatu dute joan-etorrian euskararen erabileraren gorpila abian jartzeko.





- 7.** **Euskaraldiak euskararen erabilera indartzeko baldintza sozio-afektiboak eraikitzen asmatu du.** Giro babesle eta irekia sortu du. Hala nola, euskaraz egin nahi zuenak zilegitasun soziala nabaritu du lasaitasunez jokatzeko eta hainbatek zentzua ikusi dio hizkuntza nagikeria gainetik kentzeko. Zailtasunak zituenak euskaraz egiteko adorea eskuratu du, lotsak eta beldurrak zertxobait zokoratu. Eta era berean, erdara erabili ahal izatea (euskarazko komunikazioa oztopatu gabe) tresna auto-erregulatzailer indartsua gertatu zaio euskaraz egiteko zailtasunak zituen hainbati.
- 8.** **Euskaraldiak hizkuntza praktiken inguruko ikuspegi errealistagoa ekarri dio parte hartzaile askori.** Antzematen da errealitate soziolinguistikoaz jabetzeko mugimendua gertatu dela. Norbere hizkuntza jokaera «idealizatu» samarra zuen parte hartzaile asko konturatu da benetan uste baino gutxiago egiten duela euskaraz. Hori pizgarri gertatu zaio askori hizkuntza jokaera bera hobetzeko. Beste hainbatek ikusi du Euskaraldia hasi aurretik hain zailak iruditzen ez zitzaizkion jardunak uste baino korapilatsuagoak direla (hizkuntza zailtasunak dituztenekin hizkera moldatua erabiltzea, ele biko elkarrizketari eustea, eta abar). Ikuspegi errealistago honek, hala ere, ez du galarazi hizkuntza jokaera hobetzea. Horretaz gai, euskaraz ulertu eta hitz egiten duen uste baino jende gehiago dagoela ikusi dutenak ere badira. Beraz, Euskaraldiak balio izan du jende askok bai bere buruaren bai inguruaren azterketa soziolinguistiko errealista egiteko eta kasu gehienetan errealismo hori hizkuntza erabilerako pizgarria izan da.
- 9.** Aurrerapen txikiak egon diren arren, **zailtasunik handienak** hiru alderdi hauetan egon dira: a) **Euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gaitasun mugatua dutenekin euskaraz jarduteko** jokabidea ez da asko zabaldu; hutsune nabaria dago oraindik hiztunek hizkera moldatzeko beharra daukaten komunikazio egoeratan lasai eta luze aritzeko. b) **Ele biko elkarrizketari luze eusteko.** Hau ez da parte hartzaileen jokamoldeetan sakon errotu, nahiz eta aurrerapauso interesgarriak ikusi diren. c) **Solaskideari euskaraz aritzeko gonbita edo eskaera (asertiboa) egitekorakoan** deseroso samar sentitu da parte hartzaile asko, bereziki *belarri-prest* zereginean ibilitakoak. Jokaera hauek guztiak arrotz samarrak izan dira praktika eta kultura soziolinguistikoan, eta hala izan dira parte hartzaile askorentzat Euskaraldian ere. Euskaraldian aurrerapauso txikiak eman diren arren bada norabide horretan barrena oraindik bide luzea egiteko. Bide beharrezkoa gainera, bertan kokatzen baitira oso bereziki *euskaldun osoen* eta *euskaldun hartzaileen* arteko harremanen auzia eta erronka, euskararen biziberritzearen gakoetariko bat, hain zuzen ere.



